



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legeintzaldia

Iruña, 2013ko irailaren 25a

108. ZK.

A U R K I B I D E A

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, Ogasuneko teknikarien lanpostu-kopurua handitzeko enplegu eskaintza publikoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- Galdera, Nafarroako Garraioen Kontseiluari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).
- Galdera, Toki Ogasunek Nafarroako Tributueta Parte Hartzeko Funtsaren banaketako formularen gainean NUPEk egin duen azterlanari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak eta haren menpeko enpresa publikoek 2003 eta 2012 bitartean publizitate instituzionalean eta antzekoetan eginiko gastuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- Galdera, Sarrigurenerako hezkuntza dotazio publikoen planari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (21. or.).
- Galdera, Zangozako San Salvador elizari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or.).
- Galdera, Nafarroako Museoen Sistema osatzen duten entitateei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (23. or.).
- Galdera, iruzurraren eta ezkutuko ekonomiaren aurkako borrokaren jarraipen eta ebaluazioa egiteko lan batzorde iraunkorrari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (24. or.).
- Galdera, Nafarroako ezkutuko ekonomiaren errealitatea zehazteko eta aztertzeke ikerlanari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (25. or.).
- Galdera, zerga-betebeharrak betetzeko herritarrek daukaten erantzukizunari buruz kontzientziatzeko eta hezteko hezkuntza-, informazio- eta komunikazio-estrategiari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (27. or.).
- Galdera, jakitekoa zergatik Pertsonen Autonomiarako Nafarroako Agentziak ez duen ekonomialari nahiko izan Banakakoaren Arreta Programako espedienteetako ahalmen ekonomikoko balorazioak egiteko. Foru Diputazioaren erantzuna (30. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak PFEZaren aitortpena dela-eta eginiko itzulketei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (31. or.).
- Galdera, PFEZaren kanpainan zergaren zenbatekoaren zati baten xedea (Eliza Katolikoa edo helburu sozialak) aukeratzekoan izandako arazoei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (33. or.).

- Galdera, jakitekoa 2013ra luzatutako aurrekontuen legeak sortutako egoerak eraginik duen Nafarroako Gobernuaren pentsiodunengan. Foru Diputazioaren erantzuna (34. or.).
- Galdera, 1.500 metro koadrotik gorako azalera duten saltokiei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (34. or.).
- Galdera, Nafarroak aurten bete beharreko defizit-helburuari buruz Estatuarekin gauzatzen ari den negoziatio-prozesuaren gainekoa. Foru Diputazioaren erantzuna (38. or.).
- Galdera, Genero Indarkeria Errotik Kentzeko Estrategiari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (39. or.).

F saila:
GALDERAK

Galdera, Ogasuneko teknikarien lanpostu-kopurua handitzeko enplegu eskaintza publikoari buruzkoa.**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramirez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Ogasuneko teknikarien lanpostu-kopurua handitzeko enplegu eskaintza publikoari buruzkoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2013ko ekainaren 10eko 63. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2013ko uztailaren 1ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak informazioa eskatu du Iruzur Fiskalaren aurkako Neurriei buruzko Foru Legean ezarritako langilealderdiak betetzeari buruz (PES 87/2013). Hauxe da Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariak informatu diona:

1. Iruzur Fiskalaren aurkako Neurriei buruzko apirilaren 17ko 14/2013 Foru Legeko laugarren xedapen gehigarrian jasotako agindua betez, egin beharreko lehenengo jarduketa da hutsik dauden lanpostuak Ogasuneko kudeatzaile eta ikertzaile laguntzaileen lanpostu bihurtzea, plantilla organikoa aldatzeko foru dekretu baten bitartez. Foru dekretu hori ezin da 2013ko urria baino lehen onetsi, zeren eta amortizatzea aurreikusita dauden lanpostu hutsak irailaren amaierara arte beteta baitaude BEZaren itzulketen kanpainarako kontratatutako langileekin.

Plantilla organikoa aldatzeko foru dekretu berean, lege-agindua betetzeko beharrezkoak diren Ogasuneko teknikari lanpostuak sortuko dira.

2. Behin behar diren lanpostuak sortuta, bai Ogasuneko teknikarientzat, bai kudeatzaileenak, horiek guztiak enplegu publikoko eskaintzari buruzko foru dekretu batean sartuko dira. Aurre-

kusitakoaren arabera, Nafarroako Gobernuak aurrekoa onesten duen egun berean onetsiko du hori; hau da, urrian.

3. Enplegu publikoaren eskaintza argitaratu ondoren, lanpostuak betetzeko deialdi bana onetsiko dira Ogasuneko teknikarien eta kudeatzaileen bai barneko leku-aldatzeetarako, bai sartzeko oposiziorako. Aurreikusita dago haiek urriaren amaieran edo azaroaren hasieran argitaratzea Nafarroako Aldizkari Ofizialean. Horretarako, jada, behar diren proposamenak egiten ari da Nafarroako Zerga Ogasuna.

4. Aipatutako deialdietan jasoko den bezala, aurreikusita dago Ogasuneko teknikarien lanpostuak betetzeko hautapen prozesua 2014ko azken lauhilekoan egitea, hura gainditzen duten izangaiak 2015eko lehenengo hiruhilekoan lanean has daitezkeen beren lanpostuetan.

Ogasuneko kudeatzaile eta ikertzaile laguntzaileen lanpostuei dagokienez, aurreikuspena da haien hautapen prozesua 2014ko bigarren hiruhilekoan egitea, eta hura gainditzen duten langileak urte horretako azken hiruhilekoan hastea lanean. Hala eta guztiz ere, zehaztu beharra dago kudeatzaile lanpostuak, bitartean, aldi baterako bete beharko direla, zerbitzuaren beharrei erantzute aldera.

5. Nafarroako Zerga Ogasuneko langileak ordezkatzeko egiten ari diren jarduketei dagokienez, apirilaren 17ko 14/2013 Foru Legea indarrean sartu zenetik aldi baterako langileen hamar kontratazio egin dira erakunde horretan. Horietatik, sei Ogasuneko kudeatzaile eta ikertzaile laguntzaileenak izan dira eta lau administrari laguntzaileenak.

Hori guztia, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2013ko ekainaren 28an

Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuko kontseilaria: F. Javier Morrás Iturmendi

Galdera, Nafarroako Garraioen Kontseiluari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Eloy Villanueva Cruz jaunak Nafarroako Garraioen Kontseiluari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2013ko ekainaren 10eko 63. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2013ko uztailaren 1ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari Eloy Villanueva Cruz jaunak informazioa eskatu du Nafarroako Garraioaren Kontseiluak azken hamar urteotan eginiko bilerei buruz (PES-93/13). Hauxe da Sustapeneko Departamentuaren informazioa:

1. Martxoaren 20ko 61/1985 Foru Dekretuaren bidez, Nafarroako Garraioaren Kontseilua sortu zen "ukitutako sektoreen eta Foru Komunitateko organo administratiboen arteko garraioaren arlarako komunikazio bide gisa" (61/1985 Foru Dekretuaren aitzinsolasan).

Foru dekretu horren 4. artikulua kontseilu horri kontsulta eta proposamen eginkizun orokorrak esleitzen dizkio, gisa horretako organo kolegiatuek berezko izaten dituztenak. Horrela, Nafarroako Garraioaren Kontseiluak eginkizun du Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilariak edo Nafarroako Gobernuak, beren eginkizunetan dihardutela, garraioaren sektorerako interesekoak direlakoan eskatzen dizkion gaiak aztertzea eta haiei buruz informatzea, bai eta Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuari proposamen eta mozioak aurkeztea garraioen arloko antolamendu administratibo, tekniko eta ekonomikoari buruzko neurrien gainean (61/1985 Foru Dekretuko 4. artikulua).

2. artikulua Kontseiluko lehendakaritza Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilariari edo hark eskuordetzen duen pertsonari esleitzen dio, eta lehendakariordetza, berriz, Garraio zuzendari nagusiari. Idazkari gisa Foru Komunitateko Administrazioeko legelari batek jardunen du, Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilariak izendatuta.

Kontseilua honako kideek osatuko dute:

a) Foru Komunitateko Administrazioeko edo haren erakunde autonomoetako bi kide, Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilariak izendatuak.

b) Nafarroako udalen ordezkari bat, Nafarroako Udalen Federazioak izendatua.

c) Trenbide-lineen ordezkari bat, RENFEk izendatua.

d) Nafarroako Merkataritza Ganberako ordezkari bat.

e) Nafarroan legez eraturako bidaiarien edo salgaien garraiorako lanbide elkarten hiru ordezkari.

f) Nafarroan legez eraturako kontsumitzaileen eta erabiltzaileen elkarten ordezkari bat.

g) Nafarroako Garraio Agentzien ordezkari bat.

h) Erakundeetan ordezkaritza duten sindikatu-antolamenduen hiru ordezkari, abuztuaren 2ko 32/1984 Legeko xedapen iragankorrean eta arlorako indarra duten gainerako xedapenetan ezarritakoaren arabera.

61/1985 Foru Dekretuko 3. Artikuluaren arabera, a) taldea ordezkatzeko kideek kargua utziko dute Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilariak horixe erabakitzen duenean; gainerako kideek bi urteko agintaldia izanen dute, eta epe horren amaieran berriz izendatu ahalko dira; nolahi ere, kargua utzi beharko dute Nafarroako Gobernuak kargua uzten duenean.

2. Aurrez izendatutako kideek kargua utzi duteenez, Nafarroako Garraioaren Kontseiluko osakeraren azken berritze orokorra, 2003ko maiatzaren 25eko Nafarroako Parlamenturako hauteskundeak egiteko Nafarroako Gobernuak kargua utzi zuenean gertatutakoa, Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren ekainaren 14ko 588/2004 Foru Aginduaren bidez gauzatu zen. Gero, AITANek eta RENFEk beren kideek kargua uztea eta beste batzuk izendatzea proposatu zuten (Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren urriaren 20ko 983/2004 Foru Agindua eta Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren ekainaren 5eko 79/2006 Foru Agindua).

Izendapen horiek indarra izan duten aldian, Nafarroako Garraioaren Kontseiluak bi bilkura egin ditu. Galderan aipatzen den aldian ez da bilkura gehiagorik egin.

2004ko uztailaren 26an, Nafarroako Garraioaren Kontseilua bildu zen, Jesús Odériz Echevarría buru zuela, orduan Garraio zuzendari nagusia baitzen. Aurrez, orduko Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilariak hari eskuordetu zion eginkizun hori.

Bilkurara honako pertsonak joan ziren, guztiak ere Kontseiluko kideak:

– Jesús Posadas Martínez jauna, Garraioaren Antolamendurako eta Kudeakearako Zerbitzuko zuzendaria, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren ordezkari.

– María Carmen Machiñena Solera andrea, Garraioaren Ikuskapenaren eta Arbitraje Batzordearen Ataleko burua, Foru Komunitateko Administrazioa ordezkatzuz.

– Miguel Elizari Reta jauna, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioaren ordezkari gisa.

– Jerónimo Alza López jauna, RENFEren ordezkari gisa.

– Rafael Irigoyen Miquelerena jauna, Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganberaren ordezkari gisa.

– Pedro María Ábrego Ibáñez jauna, TRADIS-NA garraioaren arloko elkartearen ordezkari gisa.

– Pedro urroz Barberena jauna, AITAN garraioaren arloko elkartearen ordezkari gisa.

– Manuel Arizcun Biurrin jauna, "Irache" Nafarroako Kontsumitzaileen Elkartearen ordezkari gisa.

– Manuel Gómez Martínez eta Imanol Abárzuza Apezarena jaunak, UGT sindikatuaren ordezkari gisa.

– Juan José Pérez Capapay jauna, CCOO sindikatuaren ordezkari gisa.

Idazkari lanetan, Garraio Zerbitzuko Araubide Juridikoaren Ataleko buru Charo Loitegui Biurrin andreak jardun zuen.

Bilkura horretan, honako gai hauek aztertu ziren:

1. Nafarroako Garraioaren Kontseilua eratzea.

2. *Garraio zuzendari nagusiak Kontseiluari informazioa ematea Administrazio Zentraleko eta autonomia erkidegoetako zuzendari nagusiek 2004ko ekainaren 17an eta 18an Jakan eginiko bileran aztertutako gaiak buruz eta sektorerako gaurkotasunekoak eta interesekoak diren beste gai batzuei buruz.*

3. *Iruñeko bidaiarien garraiorako geltoki berri-rako proiektuari buruz Nafarroak Garraioaren Kontseiluak eginiko txostena eztabaidatu eta txosten hori ematea.*

4. *Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuaren jarduketa ildoak, taxi zerbitzu publikoa hobetzeari dagokionez.*

5. Eskariak eta galderak.

Nafarroako Garraioaren Kontseiluaren hurrengo bilkura 2005eko apirilaren 22an egin zen. Bilkura horren burua Jesús Odériz Echevarría izan zen, orduan Garraio zuzendari nagusia baitzen. Aurrez, orduko Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilariak hari eskuordetu zion eginkizun hori.

Bilkurara honako pertsonak joan ziren, guztiak ere Nafarroako Garraioaren Kontseiluko kideak:

– Jesús Posadas Martínez jauna, Garraioaren Antolamendurako eta Kudeakearako Zerbitzuko zuzendaria, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren ordezkari.

Jesús Arméndariz Mateo jauna, Garraioaren Ustiapenerako Ataleko burua, Foru Komunitateko Administrazioa ordezkatzuz.

José Manuel Ayesa Dianda eta Germán Gracia Larrasoian jaunak, ANETen ordezkari gisa.

– Pedro María Ábrego Ibáñez jauna, TRADIS-NAren ordezkari gisa.

– Juan José Sarasa Baztán jauna, AITANen ordezkari gisa.

– Luis María Cantero Induráin jauna, ADIFen ordezkari gisa,

– Imanol Abárzuza Apezarena eta José Antonio Delgado Revilla jaunak, UGT sindikatuaren ordezkari gisa.

– Juan José Pérez Capapay jauna, CCOO sindikatuaren ordezkari gisa.

– Rafael Irigoyen Miquelerena jauna, Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganberaren ordezkari gisa.

– Manuel Arizcun Biurrin jauna, "Irache" Nafarroako Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Elkartearen ordezkari gisa.

Idazkari gisa, Garraioaren Zuzendaritza Nagusiari atxikitako administrazio publikoko teknikari (arlo juridikoa) Julián Martín Martínez jaunak jardun zuen.

Nafarroako Garraioaren Kontseiluko bilkura horretan, honako gaiak aztertu ziren:

1. Aurreko bilerako akta irakurri eta onestea.

2. Taxiari buruzko Foru Legearen aurreproiektuaren aurkezpena.

3. Lurreko Garraioen Antolamenduari buruzko Legeko etorkizuneko erregelamenduaren helburuak.

4. Iruñeko bidaiarien garraiorako geltokiaren espedientearen egoerari buruzko informazioa.

5. Garraioaren Hiriaren zabalkundeari (3. Fasea) buruzko informazioa.

6. Eskariak eta galderak.

3. Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren ekainaren 14ko 588/2004 Foru Aginduaren bidez izendatutako kideek beren karguak utzi ondoren, ez da formalki berritu Nafarroako Garraioaren Kontseiluaren osaera. Halere, departamentuaren eta kontseiluan ordezkariak zituzten entitateen arteko komunikazioa etengabea izan da, eta haien parte-hartzea beste prozedura batzuen bitartez artikulatu da.

Sustapeneko kontseilaria: Luis Zarraluqui Ortigosa

Galdera, Toki Ogasunek Nafarroako Tributuetan Parte Hartzeko Funtsa- ren banaketako formularen ganean NUPEk egin duen azterlanari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramirez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Toki Ogasunek Nafarroako Tributuetan Parte Hartzeko Funtsa-
ren banaketako formularen ganean NUPEk egin duen azterlanari buruzkoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2013ko ekainaren 10eko 63. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2013ko uztailaren 2an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Tafallako eta Lizarrako udalerriei eskualdeburu izaera aitortzeari buruz, non aipatzen baita "Funtsa banatzeko formula NUPEk alde aurretik aztertu zuela. Azterlan horren ondorioa izan zen aldagai-sail bat aplikatu beharra zegoela, baina aldagai horien artean ez zegoen kasuko toki entitate eskualdeko burua izatearena, jo baitzen horrek gastuan ez zeukala aipatzeko moduko eraginik (8-13/PES-00092). Hauxe erantzun dio Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako kontseilariak:

Aipatutako galderan, parlamentariak jakin nahi du azterlaneko zein ataletatik ondorioztatzen den eragina ez dela esanguratsua udalerrien horien gastuaren adierazpenean, eta txosten hori osorik bidaltzeko eskatzen du.

Eskatutakoari erantzuteko, honakoa esan behar dugu:

NUPEk azterlana egin zuenean, herri jakin batzuk finantzaketa positiboki diskriminatze aukera aztertu zen, eskualdeburutzat jotzen baitziren

herri horiek. Egoera hori aztertzeke, separata labor bat egin zen azterlanean, "Zentraltasunaren analisia" izenburuarekin. (Egindako txostenaren pdf dokumentua erantsi dugu).

Txosten horretan ikusten den bezala, egindako analisitik ondorioztatzen da ezen, egiazki, zentraltasunak gastu arrunta baino zerbait gehiago dakarrela, zeren eta estatistikoki aldagaiarekin batera agertzen den parametroa zero baino nabarmen handiagoa baita. Hala eta guztiz ere, gauza bera gertatzen da biztanle bakoitzeko diru-sarreraren aldagaiarekin, eta diru-sarreraren eta gastuen arteko diferentziarekin, alegia, aurrezkiarekin.

Horrek guztiak adierazten du nolabaiteko kontzentrazio maila batek udal jardueraren tasa handiagoa dakarrela, eta horrek gastu gehiago eta diru-sarrera unitario handiagoak dakartzala. Horretatik ondorioztatzen da zentraltasunak, nahitaez, ez dakarrela berarekin gastu behar garbi handiagoa izatea edo zentraltasuna dela-eta koefiziente zuzentzaileak ezarri behar izatea.

Gainera, Nafarroako Unibertsitate Publikoak 2009-2012 urteetarako Nafarroako Tokiko Ogasunen Transferentzia Arrunten bidezko Funtsa banatzeko formula diseinatzeari buruz egindako azterlana erantsi dugu.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2013ko ekainaren 28an

Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako kontseilaria: José Javier Esparza Abaurrea

(Eranskina: aipatutako dokumentuak eskuragarri dituzte foru parlamentariak, Parlamentuaren kudeaketarako Ágora sisteman).

Galdera, Nafarroako Gobernuak eta haren menpeko enpresa publikoek 2003 eta 2012 bitartean publizitate instituzionalean eta antzekoetan eginiko gastuari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Txema Mauleón Echeverría jaunak egindako galderaren erantzuna, Nafarroako Gobernuak eta haren menpeko enpresa publikoek 2003 eta 2012 bitartean publizitate instituzionalean eta antzekoetan eginiko gastuari buruzkoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2013ko maiatzaren 20ko 52. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2013ko uztailaren 2an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Txema Mauleón Echeverría jaunak idatzi erantzuteko galdera bat egin du Nafarroako Gobernuak eta haren menpeko enpresa publikoek 2003 eta 2012 bitartean publizitate instituzionalean eta antzekoetan eginiko gastuari buruz (PES-00068). Hauxe erantzun dio Nafarroako Gobernuko bigarren lehendakariorde, eledun eta Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremaketako kontseilariak:

Publizitate instituzionalari dagokionez, zehaztu beharra dago, lehenengo, Nafarroako gobernuak publizitate instituzionalaren arloan egiten duen inbertsioa Gardentasunari eta Gobernua Irekiari buruzko 11/2012 Foru Legeak ukitutako gai bat dela, eta lege-agindua tarteko Nafarroako Foru Komunitatearen Gobernu Irekiaren atalean kontsulta daitekeela.

Hala eta guztiz ere, gardentasunaren aldeko ahalegin hori egin izan dugu lege agindutakoaz gorako xehetasunekin, 2008az geroztik. Komunikazio Zuzendaritza Nagusiak / Gobernuko Eledunaren Bulegoak, bere urteko oroitidazkian, publizitate-kontratazioari buruzko datu guztiak argitaratzen ditu. Zure eskariaren xede den informazioa, beraz, Nafarroako Gobernuak interneten duen atariko helbide honetan aurki daitezke:

http://www.navarra.es/home_es/Gobierno+de+Navarra/Organigrama/El+Gobierno/Portavoz+del+Go+bierno/Memorias/

(ikus Sustapenaren Atala).

Aurreko ekitaldiei dagokienez (2003tik 2007ra), erantzun honi webgunean argitaratutakoaren berdin-berdina den informazioa erantsi diogu.

2003. URTEA

Prentsa kabineteak, 2003an, 2.735.578,71 euroko inbertsioa kudeatu zuen, Nafarroako Gobernuaren publizitate instituzionaleko jardueretarako. Inbertsio hori % 33 handiagoa izan zen aurreko ekitaldian erregistratutakoa baino (2.044.230,60 eurokoa izan zen hori). Igoera hori nagusiki heldu da kanpaina berriak egitetik. Horien artean, nabarmentzekoa da telebistaren arloan eginiko 300.000 euroko inbertsioa, Nafarroan Turismoa sustatzekoa.

Inbertsioaren guztizkotik, 726.394,77 euro (% 26,55) publizitate arruntari edo oharrei zegozkien. Testua baizik ez duten iragarkiak dira, eta kontratazioei, desjabetze-prozedurei, laguntzetarako deialdien epeei, enplegu publikoko hautaprobei eta abarrei dagozkie.

Gainerakoa, 2.009.183 euro, publizitate berezi-rako edo sormenezkorako erabili zen; izendapen horren barnean daude testuaz gain irudi edo diseinuren bat duten iragarkiak. Atal horretan sartzen dira iragarki puntualetik hasi eta egunkarietan, aldizkarietan, irratan eta telebistan presentzia duen publizitate-kanpainara bitarte.

Publizitate arruntaren eta sormenezko publizitatearen kudeaketa bi agentziari adjudikatu zaizkie (Blok SA eta Tecna SL), kasuko lehiaketan bitartez. Horrek aukera ematen du hedabideetan espazioak kontratatzerakoan beharpen batzuk lortzeko. Horri esker, Nafarroako Gobernuak iragan den urtean 200.000 euro inguru aurreztu ditu.

PUBLIZITATE KANPAINAK. Nafarroako Gobernuak, joan den urtean, dozena bat publizitate kanpaina sustatu zuen. Halako kanpainatzat jotzen dira iragarki bat baino gehiago dituzten jarduerak, 6.000 eurotik gorako aurrekontua dutenak. Kanpainaren gastu orokorra 1.129.906 eurokoa izan zen. Horrek sormenezko publizitatearen % 56 egin zuen, eta aurreko urtearen aldean iagoera handi samarra dakar (% 66koa).

Bolumen ekonomikoari erreparatuta, honakoak nabarmendu behar ditugu: Errentaren eta Ondarearen gaineko Aitorpenari buruzko kanpaina

(360.000 euro), TVEn Turismo spotak ematea (300.000 euro), 848 telefono aurrezenbaki berriari buruzko kanpaina (150.000 euro); tabako-kontsumoaren aurkako kanpaina (119.000 euro), eta hauteskunde autonomikoetako boto-kanpaina instituzionala (120.120 euro).

Gainerako ekimenek aurrekontu nabarmen txikiagoa dute. Gehienek helburua da urtero errepikatzen diren jarduketak edo programak ezagutzera ematea. Honakoetan gertatzen da hori: Nafarroako Jaialdiak (75.110 euro); Tokiko informaziorako telefonoa, 012 (63.000 euro), Lanbide heziketaren sustapena (54.460 euro), irakaskuntza publikoko aurre-matrikulazioa (44.319 euro), "Zubiarte" euskara irakasteko zentroko matrikulazioa (9.762 euro), Hirugarren adinerako bainuetxeen programa (8.520 euro) eta Cultur programa (8.218 euro).

Aurrekoei gehitu behar zaizkio 2003an berriak diren bi kanpaina, aurrekontu ertaina daukatenak: Nafarroako Eguneko ekitaldiei buruzko kanpaina (58.000 euro) eta Gabonetako jostailuak erosteko aholku-kanpaina (27.000 euro).

Kanpaina horiek adjudikatzeko modalitateari dagokionez, horietatik gehienak urte hartako adjudikazioa hartutako publizitate-agentziari (Tecna) enkargatu zitzaizkion. Munta ekonomiko handienekoak (errentaren aitorpenari, tabakoari eta hauteskunderi buruzkoak), berriz, lehiaketa publiko bidez adjudikatu ziren. Soilik 848 telefono-aurrezenbakiarena enkargatu zitzaion Tecnari, zeren eta epe-larritasun batzuk tarteko ezinezkoa izan baitzen lehiaketarako deia egitea.

DEPARTAMENTUEN ARABERAKO GASTUA. Kapitulu hau aztertu baino lehen, ohartarazi beharra dago ezen publizitate-gastua egozteko orduan lehenengo sei hilekoan zegoen organigramari eutsi zaiola, hau da, Nafarroako Gobernu berria hasi ondoren egin ziren aldaketen aurrekoari. Ildo horretan izen den salbuespen bakarra telefono-aurrezenbaki berriari buruzko kanpainarena izan da; izan ere, daukan tamaina dela eta, Ekonomia eta Ogasun Departamentuan kontabilizatu zen, eta antzinako Telekomunikazio Zuzendaritza Nagusiari atxiki zitzaion (gaurko Informazioaren Gizarterako Zuzendaritza Nagusia), bera baitzen sustatzailea.

2003ko publizitate-gasturik handiena Ekonomia eta Ogasun Departamentuak egin zuen. 541.189 eurokoa izan zen eta guztizkoaren % 19,7 egin zuen. Inbertsioaren bi heren PFEZaren eta Ondarearen gaineko Zergaren aitorpenari buruzko kanpainarako izan ziren; halaber, toki garrantzitsua hartzen du telefono-aurrezenbaki berriari buruzko kanpinak.

Bigarren tokian, Hezkuntza eta Kultura Departamentua dago, 461.640 euroko gastuarekin (guztizkoaren % 16,88). Normalean, departamentu hori izaten da publizitate-gastuan lehenengo tokian dagoena, zeren eta publizitate kanpaina gehiago sustatzen baitu eta kanpaina horiek urtero izaten baitira.

Gastu-bolumenean, ondoren Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentua dator, 357.978 euroko inbertsioarekin (guztizkoaren % 13,09). Kasu honetan, ia gastu guztia (% 85,9) desjabetze-prozedurei buruzko iragarki ofizialetan egin zen.

Antzeko mailak aurkitzen dira Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuan eta Industria eta Teknologia, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuan, 334.913 euroekin (% 12,35) eta 337.921 euroekin (% 12,24), hurrenez hurren. Lehenengoa nabarmentzekoa da hauteskunde autonomikoetan botoa emateko kanpaina instituzionalari dagokio, eta bigarrena, berriz, telebistarako turismo kanpainari.

Jada gastu-maila apalxeagoetan, honakoak datoz: Osasun Departamentua (215.802 euro eta % 7,89) eta Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentua (160.125 euro eta % 8,93), Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentua (154.957 euro eta % 5,66) eta Toki Administrazioiko Departamentua (126.224 euro eta % 4,61).

Azken tokian, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elidakura Departamentua dago, inbertsio-maila txikienarekin, 44.825 euro, % 1,54 egiten dutenak.

ZABALKUNDE BIDEAK. Nafarroako gobernua-ren publizitate-jarduera gehiena honakoek osatzen dute: iragarki puntualak osatzen dutena da ?haien zabalkunderako bitartekorik errentagarriena eta eraginkorrena prentsa da? eta izaera ofiziala duten iragarkiak, zeinak, legearen arabera, prentsa bidez zabaldu behar baitira.

Horren arabera, egunkarietako iragarkiek publizitate-inbertsioaren erdia baino gehiago hartzen dute (% 59), eta joan den urtean 1.639.859 euroko kopurura iritsi ziren (1.578.206 euro tokiko prentsan eta 61.653 euro prentsa nazionalen). Tokiko prentsan egindako gastuak, 2002koaren aldean % 14 gora egin badu ere, % 3 egin zuen behera hedabideen guztizkoan, telebistarako turismo kanpainaren eraginez.

Tokiko prentsari dagokionez, 1.055.470 euro Diario de Navarran inbertitu ziren eta 522.736 euro, berriz, Diario de Noticiasen. Azken horrek, beraz, inbertsioaren % 49 hartu zuen, 2002an

erregistratutakoa (% 53) baino gutxiago, nahiz eta urrun dagoen daukan hedapenaren arabera dagoen % 33tik.

Egoera hori azaltzeko orduan, iragarki ofizialen eragina aipatu beharra dago. Izan ere, iragarki horiek, legez, bi hedabideetan argitaratzen dira, eta haien kopuruak Diario de Noticiasen fakturazio osoaren % 30 egiten dute. Halaber, esan beharra dago iragarki ugari egun bakar batez argitaratzen direla, baina haien interes informatiboa dela-eta (beketarako, oposizioetarako, ikastaroetarako eta abarretarako epeak) gomendatzekoa da bi egunkarrietan argitaratzea.

Bestalde, ikus-entzunezko hedabideetan eta beste euskarri batzuetan gutxiago inbertitzen da, eta prentsarekin batera erabiltzeko gordetzen da, publizitate kanpainen esparruan. Hala eta guztiz ere, 2003a salbuespen bat izan zen, telebistari dagokionez, bereziki, jada aipatu dugun turismo kanpaina dela eta.

Zehazki 397.667 euro erabili ziren telebista spotak egiteko (gastu guztiaren % 14; aurreko urtean % 4 baizik ez zen izan) eta 120.749 euro, berriz, irrati-iragarkiak egiteko (guztizkoaren % 4,4; 2002an, berriz, % 3,1 izan zen). Azkenean, 262.631 euro (guztizkoaren % 9,6; 2002an, berriz, % 9,4 izan zen) erabili ziren beste euskarri batzuetan: afixak, markesinak, liburuxkak, hesiak, telefono-kabinak eta abar. Gainerako zenbatekoa, gastu guztia osatzerainokoa, produktiorako erabili zen (437.320 euro).

2002ko banaketari dagokionez, esan beharra dago gora egin zuela telebistan (% 10), prentsan (% 3) eta irratan (% 1,3) egindako inbertsioak, eta bestelako euskarrietako inbertsioari eutsi egin zitzaioela (+0,2).

2004. URTEA

Hedabideen Zerbitzuak, 2004an, 2.827.623 euroko inbertsioa (BEZa barne) kudeatu zuen, Nafarroako Gobernuaren publizitate instituzionaleko jardueretarako. Inbertsio hori % 5 handiagoa izan zen aurreko ekitaldian erregistratutakoa baino (2.735.578,71 eurokoa izan zen hori).

Inbertsioaren guztizkotik, 632.659 euro (% 22,3) publizitate arruntari edo oharrei zegozkien. Testua baizik ez duten iragarkiak dira, eta kontratazioei, desjabetze-prozedurei, laguntzetarako deialdien epeei, enplegu publikoko hautaprobei eta abarrei dagozkie.

Gainerakoa, 2.194.964 euro, publizitate bereziko edo sormenezkorako erabili zen; izendapen horren barnean daude testuaz gain irudi edo diseinuren bat duten iragarkiak. Atal horretan sartzen

dira iragarki puntaletik hasi eta egunkarrietan, aldizkarrietan, irratan eta telebistan presentzia duen publizitate-kanpainara bitarte.

Publizitate arruntaren eta sormenezko publizitatearen kudeaketa bi agentziari adjudikatu zaizkie (Gap's Madrid-Gap's Pamplona aldi baterako enpresen batasuna eta CDC Comunicación), kasuko lehiaketan bitartez. Horrek aukera ematen du hedabideetan espazioak kontratatzerakoan beharpen batzuk lortzeko. Horri esker, Nafarroako Gobernuak, 511.000 euro inguru aurreztu zituen.

PUBLIZITATE KANPAINAK. Nafarroako Gobernuak, joan den urtean, hogeitabi publizitate kanpaina sustatu zuen. Halako kanpainatzat jotzen dira iragarki bat baino gehiago dituzten jarduerak, 12.000 eurotik gorako aurrekontua dutenak. Kanpaina horien guztizko gastua 1.324.177 eurokoa izan zen; hau da, sormenezko publizitate-kanpainaren kopuruaren erdia baino gehiago (% 60). Zenbateko horrek % 4 egin zuen gora aurreko urtekoaren aldean.

Bolumen ekonomikoari erreparatuta, honakoak nabarmendu behar ditugu: errentaren eta ondarearen aitortpenari buruzko kanpaina eta Nafarroako Gobernuaren internet ataria sustatzeko kanpaina, biak ere 180.000 euroko aurrekontuarekin. Halaber, antzeko kopuru bat (179.000 euro) erabili zen Nafarroako irudia Nafarroan bertan eta foru erkidegotik kanpo sustatzeko iragarkietan. Ondoren, distantzia laburrean, nerabeengan tabako kontsumoari aurre egiteko kanpainarako inbertsioa dator (168.000 euro).

Nabarmenezko moduko zenbatekoa duten beste ekimen batzuen helburua da urtero errepikatzen diren jarduketak edo programak ezagutzera ematea, gehien bat. Honakoen kasua da: Nafarroako Jaialdiak (107.575 euro); Nafarroako Eguna (86.000 euro), Lanbide heziketaren sustapena (73.320 euro), Tokiko informazioarako telefonoa, 012 (60.000 euro) eta irakaskuntza publikoko aurre-matrikulazioa (48.100 euro).

Gainera, 2004an zehar, osasunaren eta kontsumoaren arloko interes praktikoko aholku batzuk zabaltzeko kanpainak egin ziren (52.000 euro), bide-segurtasunari buruzkoa (49.000), basoetako suteei aurrea hartzekoa (35.692 euro), familia harrerarako programa sustatzekoa (33.000 euro), Donejakue Bideari buruzko informazio-telefonoari buruzkoa (24.490 euro), minbiziari aurrea hartzekoa (19.000 euro), Merkataritzaren Asteari buruzkoa (16.000 euro) eta Gabonetako kontsumo arduratsuari buruzkoa (13.000 euro).

Kanpaina horiek adjudikatzeko modalitateari dagokionez, guztiak, errentari buruzkoa izan ezik, berriazko lehiaketa baten bidez egin baitzen, urte hartako adjudikazio-hartzailea zen publizitate-agentziari enkargatu zitzaizkion (Gap's Madrid-Gap's Pamplona enpresen aldi baterako batasuna).

DEPARTAMENTUEN ARABERAKO GASTUA. 2004ko publizitate-gasturik handiena Toki Administrazioiko Departamentuak egin zuen, 786.949 euroko inbertsioarekin. Horren arrazoia izan zen departamentu horri Komunikazio Zuzendaritza Nagusia atxiki zitzaioela. Izan ere, zuzendaritza nagusi hori da Nafarroako Gobernuaren publizitatea kudeatzeko eta koordinatzeko ardura duena, eta, horrenbestez, ekimen garrantzitsuenetako batzuen sustatzailea; esate baterako, interneteko atariari buruzko kanpaina, bide segurtasuneko edo Nafarroako irudiari buruzkoa.

Bigarren tokian, Kultura eta Turismo Departamentua dago, 361.736 eurorekin. Hain zuzen ere, kulturaren ardura duen departamentua gastu-bolumenean lehenengoetako bat izaten da, urteko programetako jarduerak jakitera emateko egiten duen inbertsioa dela eta: Jaialdiak, Udazkeneko Bira eta Udaberriko Bira, musika zikloak, zinema, erakusketak, lehiaketak eta abar.

Halako distantzia batera datoz Osasun Departamentua (291.736,92 euro), Ekonomia eta Ogasun Departamentua (284.009 euro) eta Hezkuntza Departamentua (245.291 euro). Gastuaren zati handi bat horietako bakoitzak abiarazitako kanpaina garrantzitsuei dagokie; esate baterako, tabakismoari aurrea hartzeko kanpaina, PFEZaren aitopenerari buruzkoa edo haur hezkuntzako eta lanbide heziketako matrikulazioa sustatzeko kanpaina.

Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuaren kasuan, berriz, guztizko inbertsioaren % 89 (165.879 euro) ohar-iragarkiei dagokie.

Hurrengoa izan zen gainerako publizitate-gastuaren departamentuen arabera banaketa: Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lana (182.954 euro); Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria (130.969 euro), Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza (59.003 euro), Lehendakaritza, Justizia eta Barnea (52.189) eta Nekazaritza (42.063,79).

ZABALKUNDE BIDEAK. Nafarroako gobernuaren publizitate-jarduera gehiena honakoek osatzen dute: iragarki puntualak osatzen dutena da ?hain zabalkunderako bitartekorik errentagarriena eta eraginkorrena prentsa da? eta izaera ofiziala duten iragarkiak, zeinak, legearen arabera, prentsa bidez zabaldu behar baitira.

Horren arabera, egunkarietako iragarkiek publizitate-inbertsioaren erdia hartzen dute (% 52), eta joan den urtean 1.482.388 euroko kopurura iritsi ziren (1.315.328 euro tokiko prentsan eta 167.059 euro prentsa nazionalean). Tokiko prentsa bideratutako gastuak % 17 egin zuen behera 2003ko inbertsioaren aldean; nazioko prentsa bideratutakoa, berriz, bikoiztu egin zen, turismo-iragarkiak tarteko.

Tokiko prentsari dagokionez, 835.367 euro Diario de Navarran inbertitu ziren eta 373.032 euro, berriz, Diario de Noticiasen eta 106.924 euro La Estafetan. Horrela, Diario de Navarrak inbertsioaren % 63,5 hartu zuen, foru erkidegoko egunkari-irakurleen guztizkoaren % 68ko zabalkundearekin (CIESek 2004ari buruz emandako datuak). Diario de Noticiasen inbertsioaren % 28,3 hartzen du zabalkundearen % 26,8rekin eta La Estafetak inbertsioaren % 8 hartzen du % 2ko zabalkundearekin.

Halaber, aldizkariak, bai Nafarroako tokiko aldizkariak, bai nazio mailako aldizkari espezializatuek, toki garrantzitsua hartzen dute; haietan, joan den urtean, 221.851 euroko inbertsioa egin zen.

Bestalde, ikus-entzunezko hedabideetan eta beste euskarri batzuetan gutxiago inbertitzen da, eta prentsarekin batera erabiltzeko gordetzen da, publizitate kanpainen esparruan.

Zehazki, 400.951 euro erabili ziren telebista spotak egiteko. Aurreko urtekoaren antzeko kopurua da, eta honela banatu zen: 139.580 euro Canal 6en, 99.974 euro TVEn, 71.037 euro en Canal 4n, 67.157 euro Antena 3en eta 23.200 euro Gaztela Leongo Canal 4n.

Irrati-iragarkien inbertsioa 108.189 eurokoa izan zen, 2003koa baino % 11 txikiagoa, beraz. Hona banaketa: 30.704 euro Cadena Copen, 29.409 euro Onda Ceron eta 26.416 euro Cadena Seren. Halako distantzia batera, beste irrati batzuk datoz: Kiss FM (7.481 euro), Cadena 100 (6.180 euro) eta 40 Principales (3.627 euro).

Kanpoko euskarrietako (markesinak eta hesiak) publizitateak 198.820 euroko gastua ekarri zuen. Kartel, liburuxka eta abarrekoen produkzioa, berriz, 247.128 euro bideratu ziren.

2005. URTEA

Hedabideen Zerbitzuak, 2005ean, 3.619.339,90 euroko inbertsioa (BEZa barne) kudeatu zuen, Nafarroako Gobernuaren publizitate instituzionaleko jardueretarako. Inbertsio hori % 27,9 handiagoa izan zen aurreko ekitaldian erregistratutakoa baino (2.827.623 eurokoa izan zen

hori). Igoera hain handi horren arrazoia da, batez ere, nazioko prentsan eta aldizkarietan egindako turismo kanpaina (516.595 euro) eta Osasunak Errege Koparen finala jokatzearen harira egindako publizitate ekintzak (135.818), bai eta kirol klubuen babesle-jarduera ere (163.800 euro).

Inbertsioaren guztizkotik, 476.210,91 euro (% 13,1) publizitate arruntari edo oharrei zegozkien. Testua baizik ez duten iragarkiak dira, eta kontratazioei, desjabetze-prozedurei, laguntzetarako deialdien epeei, enplegu publikoko hautaprobei eta abarrei dagozkie. 2005ean kontratatutako kopururak % 24,8 egin du behera 2004koaren aldean. Horren arrazoia izan daiteke La Estafeta desagertu izana eta desjabetzeei buruzko iragarkirik ez ateratzea, informazio publikoko faseari buruz, Diario de Noticiasen.

Gainerakoa, 3.143.129 euro, publizitate berezi-rako edo sormenezkorako erabili zen; izendapen horren barnean daude testuaz gain irudi edo diseinuren bat duten iragarkiak. Atal horretan sartzen dira iragarki puntualetik hasi eta egunkarietan, aldizkarietan, irratan eta telebistan eta bestelako publizitate-euskarri batzuetan presentzia duen publizitate-kanpainara bitarte.

Publizitate arruntaren eta sormenezko publizitatearen kudeaketa lehiaketa bidez adjudikatu izateak (2005ean, Gap's Pamplona Comunicación enpresak irabazi zituen bi lehiaketak) aukera eman zuen hedabideetan espazioak kontratatzerakoan beherapen batzuk lortzeko. Horri esker, Nafarroako Gobernuak, 400.000 euro baino gehiago aurreztu zituen.

PUBLIZITATE KANPAINAK. Nafarroako Gobernuak, joan den urtean, hamar publizitate kanpaina sustatu zuen. Halako kanpainatzat jotzen dira iragarki bat baino gehiago dituzten jarduerak, 12.000 eurotik gorako aurrekontua dutenak. Kanpaina horien guztizko gastua 1.760.984 eurokoa izan zen; hau da, sormenezko publizitate-kanpainaren kopuruaren erdia baino gehiago (% 56). Zenbateko ekonomikoak 2004koaren aldean gora egin zuen arren (% 32), kanpainek publizitate-inbertsioaren guztizkoan izan zuten garrantziak lau puntutan egin zuen behera 2004koaren aldean, ekimen gutxiago izan baitziren.

Bolumen ekonomikoari erreparatuta, honakoak nabarmendu behar ditugu: turismo kanpaina nazioko prentsan eta aldizkarietan (516.595); Nafarroako Ubideari buruzko kanpaina, 213.637,56 euroko aurrekontuarekin; errentaren eta ondarearen aitorpenari buruzko kanpaina (203.266), eta Osasunak Errege Kopako finala jokatzearen karietara eginiko publizitate-ekintzak.

Nabarmentzeko moduko zenbatekoa duten beste ekimen batzuen helburua da urtero errepikatzen diren jarduketak edo programak ezagutzera ematea, gehien bat. Honakoen kasua da: Nafarroako Eguna (74.000 euro); Lanbide heziketaren sustapena (78.000 euro), Tokiko informaziorako telefonoa, 012 (72.616 euro), Erriberriko Antzerki Klasikoko Jaialdia (42.371 euro) eta irakaskuntza publikoko aurre-matrikulazioa (13.806 euro).

Gainera, 2005ean zehar, bestelako kanpainak egin ziren: telebistan bide-segurtasunari eta bestelako aholku praktikoei buruzko mikrosailak (69.600 euro); Sanferminetan turismo spotak egitea (65.000 euro); irrati mikrosailak osasunari eta kontsumoari buruzko interes praktikoko gaiei buruz (53.500 euro), Nafarroak irudia New Yorken sustatzea (45.000 euro), eskola-jazarpenari aurrea hartzea (40.663 euro); basoetako suteei aurrea hartzea (24.500 euro), Zubiarte euskaltegia (13.881 euro) eta Gabonetako kontsumo arduratsua (12.000 euro).

Kanpaina horiek kontratatzeko modalitateari dagokionez, guztiak ere urte hartan publizitatearen adjudikazioa hartutako agentziari enkargatu zitzaizkion.

Halaber, berariaz aipatzekoa da Nafarroako irudia kirol klubak babestearen bitartez sustatzera bideratutako zenbatekoa. Kontzeptu hori dela eta, 163.800 euro ordaindu zitzaizkien honako klub hauei: Xota (69.000); Peralta (36.000) eta Osasuna: UEFAn parte hartu zuen bitartean (24.000 euro) eta Nafarroako Erresuma estadioaren hesietan (34.800).

DEPARTAMENTUEN ARABERAKO GASTUA. 2005eko publizitate-gasturik handiena Toki Administrazioako Departamentuak egin zuen, 1.456.860,7 euroko inbertsioarekin. Horren arrazoia izan zen departamentu horri Komunikazio Zuzendaritza Nagusia atxiki zitzaiola. Izan ere, zuzendaritza nagusi hori da Nafarroako Gobernuaren publizitatea kudeatzeko eta koordinatzeko ardura duena, eta, horrenbestez, ekimen garrantzitsuenetako batzuen sustatzailea; esate baterako, Nafarroako Ubidekoa, interes orokorreko aholkuei buruzko mikrosailetakoa, edo Nafarroako irudia kirol taldeen bitartez sustatzekoa. Gainera, Zuzendaritza Nagusiak laguntza ekonomikoa eman du beste departamentu batzuek sustatutako kanpainetarako; esate baterako, errentaren kanpainarako eta turismo kanpainetarako.

Bigarren tokian, Kultura eta Turismo Departamentua dago, 909.805,32 euroekin. Horietatik, adierazi bezala, erdia baino gehiago turismoa nazio mailan sustatzeko erabili ziren; helburu

horrek, izan ere, joan den urtean, aurreko ekitaldi-etan baino inbertsio handiagoa ekarri zuen. Gainera, departamentu hau lehenengoetako bat izaten da gastu-bolumenean, bere urteko programetako jarduerak ezagutzera emateko egiten dituen iragarkietatik: Jaialdiak, Udazkeneko Bira eta Uda-berriko Bira, musika zikloak, zinema, erakusketak, lehiaketak eta abar.

Esateko moduko distantzia batera, Hezkuntza Departamentua (251.810,47 euro) eta Ekonomia eta Ogasuna Departamentua (239.181,53 euro) datoz, egin dituzten kanpainetatik (eskola-jazarpena, eskola publikoko matrikulazioa eta lanbide heziketa, PFEZa eta abar). Ondotik, Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentua (174.586,44 euro) dator, non inbertsio gehiena desjabetzei buruzko iragarkietan egin baita.

Hurrengo izan zen gainerako publizitate-gastuaren departamentuen arabera: Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lana (148.932 euro), Osasuna (145.741,91); Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria (144.283,41 euro), Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza (66.408,77 euro), Nekazaritza (42.063,79) eta Lehendakaritza, Justizia eta Barnea (39.664,84).

ZABALKUNDE BIDEAK. Nafarroako gobernua- ren publizitate-jarduera gehiena honakoek osatzen dute: iragarki puntualak osatzen dutena da ?haien zabalkunderako bitartekorik errentagarriena eta eraginkorrena prentsa da? eta izaera ofiziala duten iragarkiak, zeinak, legearen arabera, prentsa bidez zabaldu behar baitira.

Horren arabera, egunkarietako iragarkiek publizitate-inbertsioaren ia erdia hartzen dute (% 44,2), eta joan den urtean 1.381.073 euroko kopurura iritsi ziren, BEZik gabe (1.070.337 euro tokiko prentsan eta 310.736 euro prentsa nazionalean). Prentsa bideratutako gastuak % 21,7 egin zuen gora. Igoera horren arrazoia izan zen turismo-iragarki ia guztiak prentsa nazionalean argitaratu zirela. Aitzitik, tokiko prentsako inbertsioak % 6,2 egin zuen behera. Horri dagokionez, gogorarazi behar da lehenengo seihilekoan La Estafeta egunkaria itxi zela.

Hedabideei erreparatuta, Diario de Navarra egindako inbertsioa 733.284,17 eurokoa izan zen (2004an baino % 1,8 handiagoa), Diario de Noticias egindakoa 285.822 eurokoa izan zen (2004an baino % 11,2 gehiago) eta La Estafeta egindakoa, berriz, 36.207 eurokoa izan zen Azkenik, Vivir Pamplonak 15.023 euroko inbertsioa hartu zuen (2004an baino % 133 gehiago).

Datu horien arabera, Diario de Navarra inbertsioaren % 68,5 hartu zuen, foru erkidegoko egunkari-irakurleen gutzitzkoaren % 72ko hedapenarekin (CIESen datuak dira, 2005ekoak, Vivir Pamplona kontatu gabe) eta Diario de Noticias, berriz, inbertsioaren % 26,7 hartu zuen, irakurleen % 26,8 edukita.

Aldizkariak, bai Nafarroako tokiko aldizkariak, bai estaldura nazionala dutenak, inbertsioa bikoiztu zuen 534.336 eurora iristeraino, aipatutako turismo-kanpaina dela eta. Bestalde, ikus-entzuzko hedabideetan eta beste euskarri batzuetan gutxiago inbertitzen da, eta prentsarekin batera erabiltzeko gordetzen da, publizitate kanpainen esparruan.

Zehazki, 386.793 euro erabili ziren telebista spotak egiteko (2004an baino % 11,5 gehiago). Honela banatu ziren: 123.766 euro Canal 6en (gutzitzkoaren % 31,9. 2004an baino % 2 gehiago), 120.589 TVEn (% 31,1. + % 39), 67.253 euro Canal 4n (% 17,3. + % 9), 63.444 euro en Antena 3en (16,4. + % 9) eta 11.740 euro Popular TVn (% 3).

Irrati-iragarkien inbertsioa 86.395 eurokoa izan zen, 2004koa baino % 7,4 txikiagoa, beraz. Hona inbertsioaren banaketa: 28.327 euro Cadena Copen (gutzitzkoaren % 32,7. 2004an baino % 7 gehiago), 25.813 Cadena Seren (gutzitzkoaren % 29,8. +% 13) eta 23.602 Onda Ceron (gutzitzkoaren % 27,3. - 7%). Distantzia handi batera datoz beste irrati batzuk: Kiss FM (2.591 euro. - % 66), Cadena 100 (2.254 euro. - % 64) eta 40 Principales (1.769 euro.- % 52) eta Net 21 (1.575 euro. + 36%). Jaitsiera nagusiki gertatu da formula-irradi musikaletan, eta horren arrazoia da 2005ean ez zela gazteei zuzendutako kanpaina berariazkorik egin; 2004an, aldiz, bai egin zen (tabakoaren kontsumoari aurrea hartzekoa).

Kanpoko euskarrietako (markesinak eta hesiak) publizitateak 87.144 euroko gastua ekarri zuen. Kartel, liburuxka eta abarrekoen produktoria, berriz, 75.249 euro bideratu ziren. Kartelen produktoria 32.170 euro, eta merchandisig gaitara (boligrafoak, orrialde-markatzaileak eta abar), azkenik, 59.597 euro). Halaber, 67.120 euro inbertitu ziren kanpainak sustatzeko zenbait ekintzatan (azafatak, aurkezpenak, zizka-mizkak eta abar), 22.594 euro zinema-aretoetan spotak emititzeko eta 7.845 euro Nafarroako herrietan barna dabilen afixa mugikorrerako.

Bestalde, prentsa-iragarkien, irrati-iragarkien, telebista eta zinema spoten eta aldizkarietako iragarkien sormeneko lanak eta produktioak 214.185 euroko gastua ekarri zuen (karteletako, liburuxke-

tako eta markesinetako sormen-lana inbertsioaren guttizkoan dago).

2006. URTEA

Hedabideen Zerbitzuak, 2006an, 5.482.007,2 euroko inbertsioa (BEZa barne) kudeatu zuen, Nafarroako Gobernuaren publizitate instituzionaleko jardueretarako. Inbertsio hori % 51,4 handiagoa izan zen aurreko ekitaldian erregistratutakoa baino (3.619.339,9 eurokoa izan zen hori). Igoera hain handi horren arrazoia dira, funtsean, turismo kanpainak, bai Nafarroa sustatzeko kanpaina orokorra, bai 2006an antolatutako kultur ekitaldien berriazko kanpaina edo Xabierko San Frantziskoren V. urteurreneko ekitaldietakoa ere.

Inbertsioaren gutzizkotik, 614.019,77 euro (% 12) publizitate arruntari edo oharrei zegozkien. Testua baizik ez duten iragarkiak dira, eta kontratazioei, desjabetze-prozedurei, laguntzetarako deialdien epeei, enplegu publikoko hautaprobei eta abarrei dagozkie. 2006an kontratatutako kopuruak % 29ko igoera suposatzen du 2005ekoaren aldean. Horren zati handi bat desjabetze-jarduerak egora egin izateari zor zaio. Hala eta guztiz ere, publizitate mota horrek garrantzia galtzen du inbertsioaren guttizkoan (bi puntu).

Gainerakoa, 4.867.987,40 euro, publizitate berezira edo sormenezkorako erabili zen; izendapen horren barnean daude testuaz gain irudi edo diseinuren bat duten iragarkiak. Atal horretan sartzen dira iragarki puntualek hasi eta egunkarietan, aldizkarietan, irradian eta telebistan eta bestelako publizitate-euskarri batzuetan presentzia duen publizitate-kanpainara bitarte.

Publizitate arruntaren eta sormenezko publizitatearen kudeaketa lehiaketa bidez adjudikatu izateak (2005ean, lehenengoa Tecna SLk irabazi zuen eta bigarrena Gap's Pamplona Comunicación enpresak) aukera eman zuen hedabideetan espazioak kontratatzerakoan beharpen batzuk lortzeko. Horri esker, Nafarroako Gobernuak, ia 500.000 euro aurreztu zituen.

PUBLIZITATE KANPAINAK. Nafarroako Gobernuak, joan den urtean, hamar publizitate kanpaina sustatu zuen. Halako kanpainatzat jotzen dira iragarki bat baino gehiago dituzten jarduerak, 15.000 eurotik gorako aurrekontua dutenak. Kanpaina horien gutzizko gastua 3.349.716 eurokoa izan zen; hau da, sormenezko publizitate-kanpainaren kopuruaren ia bi heren (% 61,1). Horri dagokionez, nabarmentzekoa da 2005aren aldean igoera handia izan dela, bai inbertsioari dagokionez, ia bikoiztu baita (+ % 90,2), bai sormenezko publizitatearen gutzizkoan duen garrantzi espezifikoari dagokionez ere (+ % 12,8).

Igoera horren arrazoia izan da, zalantzarik gabe, turismoko inbertsioa asko handitu dela. Horrek, izan ere, inbertsio-jarduera gehiago eskatzen ditu. Hartara, turismoa sustatzeko kanpaina orokorra 1.200.000 eurokoa izan zen; Kultura-urteari dagokiona, berriz, 1.032.680,5 eurokoa izan zen. Ondoren, bolumen ekonomikoari erreparatuta, errentari buruzko kanpaina (202.099,72 euro), Xabierko San Frantziskoren V. Urteurreneko kanpaina (171.086 euro) eta gazteengan alkoholaren kontsumoari aurrea hartzeko kanpaina (117.295,7 euro).

Hona beste ekimen batzuk: "Nafarroa: guztion artean etorkizuna eraikiz" izeneko erakusketa (90.276 euro), Nafarroaren Eguna (79.959 euro), Lanbide Heziketa (79.353), 012 Telefonoa (71.076), Erriberriko Antzerki Jaialdia (56.309), Etxeko tresna elektrikoaren Renove Plana (42.304 euro), suteei aurrea hartzeko kanpaina (29.151), Tuterako katedraleko erakusketa (24.865), TDT telebista eskaintza (22.240) eta eskola publikoko matrikulazio kanpaina (16.224).

Ekimenen multzo horretatik, ia erdia urtero programa, jarduketa edo zerbitzu jakin batzuk ezagutzera emateko egiten diren kanpainei dagozkie: PFEZaren kanpaina, Nafarroaren Eguna, 012 tokiko informazioko telefonoa, lanbide heziketaren sustapena, Erriberriko antzerki klasikoko jaialdia edo suteei aurrea hartzeko kanpaina.

Gainera, bestelako publizitate bat ere badago, berez kanpaina izatera iritsi gabe, hedabide mota bakar batean garatzen baita, inbertsio eta zabal-kunde bolumen handia dakarrena, hedabidearekin urte osoan zehar hartu-eman egonkorra edukitze-ko beharra ekartzeaz gainera. Bide segurtasunari eta jazarpenari buruzko mikrosailak dira, tokiko telebistetan ematen direnak (Canal 4, Canal 6 eta Popular TV), 85.728 euroko kostuarekin, eta herritarrei aholku emateko mikrosailak, Cope, Ser eta Onda Cero irratiaren programatzen direnak eta 45.700 euroko aurrekontua hartzen dutenak. Atal honetan, aipatzekoa da, era berean, aipatutako hiru telebistetan gorrentzat egiten den publizitatea, zeinak 62.640 euroko inbertsioa ekarri baitzuen, eta TVEko "Museos de Navarra" programan emititzen diren iragarkiak (45.936).

Kanpaina horiek kontratatze modalitateari dagokionez, guztiak ere urte hartan publizitatearen adjudikazioa hartutako agentziari enkargatu zitzaizkion.

DEPARTAMENTUEN ARABERAKO GASTUA. 2006ko publizitate-gastu handiena Kultura eta Turismo Departamentuak egin zuen, 2.514.763,2 euroko inbertsioarekin. Horren arrazoia dira, adie-

razi dugun bezala, nazio mailan egin diren turismo-sustapeneko kanpainak. Halaber, departamentu hori da kultur jarduera ugari sustatzen dituen, eta jarduera horietarako publizitate-ekintzak egin behar dira: jaialdiak, erakusketak, Udazkeneko Bira eta Udaberriko Bira, musika zikloak, zinema, lehiaketak eta abar.

Ondotik, baina distantzia handira, Toki Administrazio Departamentua dator, 1.420.270,20 euroko inbertsioarekin. Departamentu hori, zeinari atxikita baitago Komunikazio Zuzendaritza Nagusia, eta zuzendaritza nagusi hori da Nafarroako Gobernuaren publizitatea kudeatzeko eta koordinatzeko ardura duena, eta, horrenbestez, ekimen garrantzitsuenetako batzuen sustatzailea. 2006an, honako kanpainak finantzatu ziren: Xabierko San Franziskoren V. urteurrenaren kanpaina, "Nafarroa: guztion artean etorkizuna eraikiz" erakusketarena, Nafarroaren Egunarena, Sanferminetako spotenak edo Nafarroak Larrialdi Agentziarena. Gainera, tokiko telebistetako eta irratietako mikrosailei eta lankidetzara iraunkorrei zegozkien gastuak ordaindu ziren.

Halaber, ekarpen ekonomiko batzuk egin dira beste departamentu batzuetako kanpainetarako, haien zabalkundea areagotze aldera. Horixe da Kultur Urtearen kanpainaren, PFEZari buruzko kanpainaren, alkoholismoari buruzko kanpainaren eta Tuterako katedralari buruzko erakusketari buruzko kanpainaren kasua.

Elkarren antzeko kopuruekin, nahiz eta inbertsio maila askoz txikiagoa eduki, Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentua (264.056,27 euro), Osasun Departamentua (264.056,27 euro) Hezkuntza Departamentua (263.053,39), Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan Departamentua (245.898,44) eta Ekonomia eta Ogasun Departamentua datoz (242.326,24) Lehenengo departamentuaren kasuan postu horretan egoteko arrazoia dira desjabetze-iragarkiak; gainerakoen kasuan, funtsean, arrazoia da joan den urtean munta handi samarren kanpainak sustatu zituztela: alkoholismoari aurrea hartzeko kanpaina (Osasuna), lanbide heziketa sustatzekoa, eskolaratzeari buruzkoa, Zubiarte euskaltegia... (Hezkuntza), errentari buruzko kanpaina (Ekonomia) eta etxeko tresna elektrikoaren Renove Planarena (Industria).

Honakoa izan zen beste departamentuetako banaketa: Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria (102.515,11), Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza (76.191,61 euro), Nekazaritza (46.155,49) eta Lehendakaritza, Justizia eta Barnea (42.464,14 euro).

ZABALKUNDE BIDEAK. Hedabideen arteko banaketari dagokionez, turismo-kanpainen tamaina dela eta, haien hartzaile nagusia telebista izan da. Horrek eragin du prentsak izan ohi zuen garrantzi espezifikoak behera egitea; izan ere, lehenago publizitate-fakturaren ia erdia hartzen zuen prentsak. Ondoren, euskarri desberdinetako inbertsioa zehazten da (BEZik gabeko kopuruak dira).

2006an, egunkarietako iragarkiek 1.690.969,9 euro egin zuten (1.231.524,1 euro tokiko prentsan eta 455.825,51 euro prentsa nazionalean). Gastuak % 22 egin zuten gora bi ataletan, nahiz eta prentsak guztizkoan zuen garrantzi espezifikoak % 44tik % 30,8ra jaitsi zen.

Hedabideei erreparatuta, Diario de Navarran egindako inbertsioa 850.890,30 eurokoa izan zen (2005ean baino % 16 handiagoa), Diario de Noticiasen egindakoa 345.433,33 eurokoa izan zen (2005ean baino % 20 gehiago) eta ADNn (lehenago Vivir Pamplona) egindakoa, berriz, 34.150,51 eurokoa izan zen (% 227 handiagoa). Lehenengo biei dagokienez, esan behar da Diario de Navarra publizitate arrunt gehiago, desjabetzei buruzko publizitate gehiago eta sormen gutxiko publizitate gehiago hartu duela; Diario de Noticiasen, berriz, hiru iragarki motatan egin du gora: % 37,2 desjabetzei buruzkoan, % 18 publizitate arruntean eta % 16 sormen gutxikoan).

Datu horien arabera, Diario de Navarra tokiko prentsan egindako inbertsioaren % 69 hartu zuen, foru erkidegoko egunkari-irakurleen guztizkoaren % 62,3ko hedapenarekin (CIESen datuak dira, 2006koak, ADN sartuta) eta Diario de Noticiasen, berriz, inbertsioaren % 28 hartu zuen, irakurleen % 22,8 edukita. Azkenik, ADNk inbertsioaren % 2,7 hartu zuen, irakurleen % 17,5arekin, nahiz eta eragin horietarako gogorarazi behar den ADN doanekoa dela.

Prentsa nazionalari erreparatuta, nabarmentzekoa da El País egunkariak, inbertsioa 258.497 euroekin, atal honetako gastuaren % 56,7 hartu zuela, El Viajero gehigarrian jarritako turismo-iragarkiengatik.

Aldizkariak, Nafarroako tokiko aldizkariak nahiz nazio-estaldura dutenek, 456.755,14 euroko inbertsioa hartu zuten, 2005ean baino % 14,5 gutxiago. Jaitsiera horren arrazoia da urte horretan ez zela errepikatu 2005ean turismo-iragarkiek sektoreko aldizkarietan izan zuten presentzia. Hala eta guztiz ere, bai handitu zen Nafarroako tokiko aldizkarietan egindako inbertsioa. Oro har, ehun aldizkari ingurutan jarri ziren iragarkiak.

Ikus-entzunezkoen sektoreari dagokionez, nabarmentzekoa da, jada adierazi dugun bezala, telebistan egindako inbertsioa izugarri handitu dela, bereziki nazio-estaldurakoetan, turismo-kanpainen ondorioz. Zehazki, 1.703.832,1 euro erabili ziren telebista spotak egiteko, eta hori 2005eko inbertsioaren lau halako da (+ % 440). Inbertsio handiena nazioko kateetan egin zen, eta aurreko urteen aldean igoera ikusgarriak izan ziren.

Ondorengo hau da banaketa, zehazki: 697.772,01 euro Antena 3en (gutzizkoaren % 41 eta 2005ean baino hamar aldiz gehiago), 512.374,58 euro TVEn (gutzizkoaren % 30 eta 2005an baino ia lau aldiz gehiago), 144.774,10 euro TV3en (% 8,4, lehengo aldiz), 113.320,47 euro Canal 6en (% 6,6 eta - % 2,4), 106.330,89 euro Telemadriden (% 6,2, lehenengo aldiz), 59.767,75 euro Canal 4n (gutzizkoaren % 3,5 eta - % 11,2), 52.968,29 Popular TVn (% 3,1 eta + % 45,1), 12.614 euro TV Intereconomían (lehenengo aldiz), eta 4.000 euro Poloniako telebistan (lehenengo aldiz).

Tokiko esparruan, Canal 4k izan duen jaitsiera txikiak eta Canal 6k izan duen jaitsiera handiagoak arrazoi bat izan dute: ohiko kanpainetako batean (lanbide heziketakoa) ez zen spotik izan, azkeneko edizioan. Halaber, gora egin zuten agentzia adjudikazio-hartzaileak eskainitako beherapenek; horrenbestez, pase kopuru berarekin ere faktura txikiagoa izan zen. Popular TV da 2005aren aldean nabarmen igotzen den bakarra, zeren eta urte horretan soilik hilabete batzuetan jarri baitzen publizitatea, emititzek lizentzia lortu zuenetik aurrera.

Bestalde, irrati-iragarkien inbertsioa 108.839,95 eurokoa izan zen, 2005ekoa baino % 25,9 txikiagoa, beraz. Hona inbertsioaren banaketa: 33.298,43 euro Cadena Copen (gutzizkoaren % 30.

2005ean baino % 17,5 gehiago), 27.589,99 Cadena Seren (gutzizkoaren % 25. +% 6,88) eta 27.502,15 Onda Ceron (gutzizkoaren % 25. +16,5%). Distantzia handi batera datoz beste irrati batzuk: Kiss FM, 5.721,66 euroekin (% 5. + % 220), 40 Principales: 5.049,51 euroekin (% 4,6. +% 285), Cadena 100: 4.208,18 euroekin (% 3,8.

+% 186), Europa FM: 2.841,60 euroekin (gutzizkoaren % 2. Lehenengo aldia da), Punto Radio: 1.660,80 (1%. Primera aparición). Azkenean, eta modu ia testimonialean, tokiko bi irrati daude: Onda Ribera (659,60 euro) eta Xorroxin Irratia (308,03 euro).

Datu horiei erreparatuta, ikusten da musika-irratiek nabarmen egin dutela gora, gazteei zuzen-

dutako kanpaina bat badagoelako: alkoholaren kontsumoari aurrea hartzekoa.

Kanpoko euskarriek (markesinak eta hesiak) 97.100 euroko gastua ekarri zuten (2005ean baino % 11,4 gehiago); beste 46.232 euro sustapen gaitarako erabil ziren (boligrafoak, egutegiak, orrialde-markatzaileak eta abar); 38.719,90 euro liburuxkak egiteko, eta 12.783,61 euro afixak egiteko. Halaber, 71.556 euro (+ % 5) inbertitu ziren kanpainak sustatzeko hainbat ekintzatan (azafatak, aurkezpenak, zizka-mizkak eta abar), 59.114,27 euro zinema-aretoetan spotak emititzeko, 32.643 euro interneteko atarietan publizitatea egiteko, 31.715 euro zenbait materialetan (txartel handiak, zorionak emateko txartelak, aurkezpenak, DVDak eta abar) eta 28.325 euro pilotalekuetan panelak jartzeko.

Atal honetan, nabarmentzekoa da interneten igoera handia, Periodista Digitalen presentzia jarraituaren ondorioz, bai eta zinemetakoa ere (2005ekoaren bi halako da); igoera txikiagoak izan dituzte markesinetan eta kanpaina ekintzetan egindako gastuek, % 11 eta % 6 hurrenez hurren. Aitzitik, behera egin du merchandisingean egindako inbertsioak, bai eta liburuxka eta afixetan egindakoak ere. Azken horiei dagokionez, esan beharra dago, halere, kopuruak asko aldatzen direla urtetik urtera, zeren eta departamentuek hartzen duten erabakiaren arabera baita (liburuxkak Gapsen bitartez egin edo Argitalpen Zerbitzuaren bidez egin). Erabaki hori materiala eskuratzeko presaren arabera izaten da.

Jatorrizko dokumentuak, idatzizkoak nahiz ikus-entzunezkoak, diseinatu eta sortzeko kostua 338.537,71 eurokoa izan zen. Bestalde, markesinetako, liburuxketako eta beste euskarri batzuetako sormen-laneko gastua produkzio-kostuaren barrenean dago.

2007. URTEA

Hedabideen Zerbitzuak, 2007an, 6.311.532,2 euroko inbertsioa (BEZa barne) kudeatu zuen, Nafarroako Gobernuaren publizitate instituzionaleko jardueretarako. Inbertsio hori % 15,1 handiagoa izan zen aurreko ekitaldian erregistratutakoa baino (5.482.007,6 eurokoa izan zen hori). Igoera horren arrazoia, gehien bat, turismoa sustatzeko kanpainan egindako inbertsioaren igoera izan da, bai eta kanpaina berriak egotea ere; esate baterako, 27-Mko hauteskundeetan botoa sustatzeko kanpaina eta Foruaren Hobekuntzaren XXV. urteurreneko ospakizunaren kanpaina. Bi horiek aurreko urtean ez ziren egon.

Inbertsioaren gutzizkotik, 663.062 euro (% 10,5) publizitate arruntari edo oharrei zegozkien.

Testua baizik ez duten iragarkiak dira, eta kontratazioei, desjabetze-prozedurei, laguntzetarako deialdien epeei, enplegu publikoko hautaprobei eta abarrei dagozkie. 2007an kontratatutako kopuruak % 7,9ko hazkundea du aurreko urtekoarekin alderatuta. Hala eta guztiz ere, publizitate mota horrek garrantzia galtzen jarraitzen du inbertsioaren gutzitza.

Gainerakoa, 5.648.470 euro, publizitate bereziko edo sormenezkorako erabili zen; izendapen horren barnean daude testuaz gain irudi edo diseinuren bat duten iragarkiak. Atal horretan sartzen dira iragarki puntualetik hasi eta egunkarietan, aldizkarietan, irradian eta telebistan eta bestelako publizitate-euskarri batzuetan presentzia duen publizitate-kanpainara bitarte.

Publizitate arruntaren eta sormenezko publizitatearen kudeaketa lehiaketa bidez adjudikatu izateak (2007an, lehenengoa Tecna SLk irabazi zuen eta bigarrena Gap's Pamplona Comunicación enpresak) aukera eman zuen hedabideetan espazioak kontratatzerakoan beherapen batzuk lortzeko (% 14 eta 70 bitartekoak, hedabidea zein den). Horri esker, Nafarroako Gobernuak, 800.000 euro baino gehiago aurreztu zituen.

Inbertsio ekonomikoaz gainera, Nafarroako Gobernuaren publizitate-presentziaren beste adierazle bat da, soilik tokiko prentsa hartuta, 2007an, 959 iragarki jarri zirela (519 Diario de Navarran eta 440 Diario de Noticiasen).

PUBLIZITATE KANPAINAK. Nafarroako Gobernuak, joan den urtean, hogeitabi publizitate kanpaina inguru sustatu zuen. Halako kanpainatzat jotzen dira iragarki bat baino gehiago dituzten jarduerak, 15.000 eurotik gorako aurrekontua dutenak. Kanpaina horien guztizko gastua 4.045.861 eurokoa izan zen, aurreko urtean baino % 20 gehiago, beraz, funtsean kanpaina-kopuruak gora egin duelako. Ekintza mota honek sormeneko publizitatearen bi heren egiten du (% 64,1). Ehuneko hori aurreko urtekoaren ia berdina da (% 61,1).

Turismo kanpaina, askorengatik, munta ekonomiko handiena duena da: 2.793.768 euro. Ondotik, honakoak datoz: errenta kanpaina (300.000 euro), immigrazioaren fenomenoaren aurrean sentsibilizatzeko kanpaina bat (199.945 euro) eta bide segurtasunari buruzko beste ekintza bat (179.246 euro).

100.000 eurotik gora, beste ekimen batzuk ere badaude: nerabeengan droga-kontsumoari aurrea hartzeko (137.029 euro), Nafarroako Parlamenturako eta kontzejuetarako hauteskundeetan botoa sustatzeko (129.897 euro), Nafarroaren Eguna (120.734 euro) eta "Nafarroa martxan" Foruaren

Hobekuntzaren XXV. urteurrena ospatzeko erakusketa (102.040 euro).

Honakoa da gainerako kanpainen banaketa: lanbide heziketaren sustapena (81.328 euro), Erriberriko jaialdia (66.606), irakasleen lana aitortzea (56.597 euro), martxoaren 17k manifestazioa (55.106 euro), etxeko tresna elektrikoaren renove plana (47.446 euro), menpetasuna dutenei laguntza emateko informazioa (42.678), autobus geltokiaren inaugurazioa (34.200), teknologia berrietarako sarbidea (34.564), Nafarroako historiari buruzko liburuaren enkartea (27.279 euro), eskola publikoko matrikulazioaren sustapena (20.320), Nafarroako Aldizkari Ofizialaren egituratze berria interneten (20.311) edo suteei aurrea hartzea (19.653).

Ekimenen multzo horretatik, batzuk urtero programa, jarduketa edo zerbitzu jakin batzuk ezagutzera emateko egiten diren kanpainei dagozkie: PFEZaren kanpaina, Nafarroaren Eguna, lanbide heziketaren sustapena, etxeko tresna elektrikoaren renove plana, Erriberriko antzerki klasikoko jaialdia edo suteei aurrea hartzeko kanpaina.

Gainera, bestelako publizitate bat ere badago, berez kanpaina izatera iritsi gabe ere atal honetan sartzen dena, zeren eta hedabide mota bakar batean garatzen baita, inbertsio eta zabalkunde bolumen handia dakarrena, hedabidearekin urte osoan zehar presentzia egonkorra edukitzeaz gainera. Honakoak dira: herritarrei aholku emateko mikrosailak, Cope, Ser eta Onda Cero irratiaren programatzen direnak (haien aurrekontua 62.457 eurokoa da); Diario de Navarraren webguneko bannerrak (58.062) eta Periodista Digitalekoak (19.331) eta ADNren "Leer es Vivir" Nafarroako Gobernuaren argitalpenei buruzko atala.

Kanpaina horiek kontratatze modalitateari dagokionez, guztiak ere urte hartan publizitatearen adjudikazioa hartutako agentziari enkargatu zitzaizkion.

DEPARTAMENTUEN ARABERAKO GASTUA. 2007ko publizitate-gastu handiena Kultura eta Turismo Departamentuak egin zuen, 2.611.096 euroko inbertsioarekin. Horren arrazoia dira, gehien bat, adierazi dugun bezala, nazio mailan egin diren turismo-sustapeneko kanpainak. Hala, departamentu hori da kultur jarduerari ugaritatu dituen, eta jarduerari horietarako publizitate-ekintzak egin behar dira: jaialdiak, Udazkeneko Bira eta Udaberriko Bira, musika zikloak, zinema, erakusketak, lehiaketak eta abar.

Ondotik, distantzia handi batera bada ere, Gobernuaren Eledunaren eta Erakundeekiko Harremanetarako Departamentua dago (Toki

Administraziokoa, abuztura arte), 1.421.408 euroko inbertsioarekin. Departamentu hori, zeinari atxikita baitago Komunikazio Zuzendaritza Nagusia, eta zuzendaritza nagusi hori da Nafarroako Gobernuaren publizitatea kudeatzeko eta koordinatzeko ardura duena, eta, horrenbestez, ekimen garrantzitsuenetako batzuen sustatzailea. 2007an, honako gaiei buruzko kanpainak finantzatu zituen: immigrazioa, Foruaren Hobekuntzari buruzko erakusketa eta Nafarroaren Eguna. Halaber, laguntza ekonomiko handia eman zuen turismo kanpainarako eta bide segurtasuneko kanpainarako. Gainera, kontratazio iraunkor batzuk ordaintzen ditu; esate baterako, bannerrak, irratiko mitrosailak eta abar.

Antzeko zenbatekoekin baina inbertsio maila askoz ere apalagoarekin, honakoak ageri dira: Hezkuntza (355.150 euro), Ekonomia eta Ogasuna (347.975) eta Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu (303.838 euro). Posizio horretan daude zeren eta guztietan munta handi samarreko kanpainaren bat egin zelako: lanbide heziketa sustatzekoa, eskolaratzeari buruzkoa eta irakasleak aitortzekoa (Hezkuntza), errentari buruzkoa (Ekonomia) eta etxeko tresna elektrikoaren Renove Planarena (Industria).

Honakoa izan zen beste departamentuetako banaketa: Osasuna (288.986 euro), Herri Lanak, Garraioa eta Komunikazioak (237.352 euro), Lehendakaritza, Justizia eta Barnea (181.950 euro), Gizarte Gaiak, Kirola eta Gazteria (108.658 euro), Landa Garapena eta Ingurumena (69.212 euro), eta Etxebizitza eta Lurraldearen Antolamendua (39.118).

ZABALKUNDE BIDEAK: PRENTSA ETA ALDIZKARIAK Hedabideen arabera banaketari dagokionez, gehien nabarmendu behar dena da prentsan egindako inbertsioa berreskuratu dela, telebistan egindakoaren kaltetan; hain zuzen ere, 2006an gertatutakoaren kontrakoa da. Ondoren, euskarri desberdinetako gastua zehazten dugu, hedabide bakoitzeko inbertsio-kopuru garbien arabera (BEZik eta produkzio kosturik gabe, beraz).

2007an, egunkarietako iragarkiek 2.175.599 euro (BEZik gabe) egin zuten (1.450.578 euro tokiko prentsan eta 725.021 euro prentsa nazionalen). Gastuak % 29 egin zuen gora aurreko urtekoarekin alderatuta. Hazkunde hori tokiko prentsan ere (% 31,5) gertatzen da, baina bereziki prentsa nazionalen ikusten da (% 57,8), turismo-kanpaina tarteko. Igoera horrek aukera eman dio publizitatearen guztizkoko garrantzi espezifikoan ia 10 puntu berreskuratzeko, halako moduz non inbertsioaren % 40 hartzen baitu.

Igoera gertatzen da sormena duten iragarkietan, zeinek 1.615.368 euro (+ % 39,9) egiten baitu-

te; bitartean, oharrei buruzko iragarkietan egindako inbertsioak % 5,6 egin zuen behera (550.232 euro). Azken horretarako bi arrazoi daude: alde batetik, publizitate jarduera txikiagoa, eta bestetik tarifen beherapenak lau puntu igo izatea (% 14raino).

Hedabideei erreparatuta, Diario de Navarra egindako inbertsioa 981.636 eurokoa izan zen (2006an baino % 15,3 handiagoa), Diario de Noticias egindakoa 422.979 eurokoa izan zen (2006an baino % 22 gehiago) eta ADNn egindakoa, berriz, 47.043 eurokoa izan zen (% 37,7 handiagoa). Lehenengo biei dagokienez, esan behar da bietan gora egin zuela sormenezko publizitateak eta behera, berriz, publizitate arrunta eta desjabetzei buruzkoa.

Datu horien arabera, Diario de Navarra tokiko prentsan egindako inbertsioaren % 67,6 hartu zuen, foru erkidegoko egunkari-irakurleen guztizkoaren % 58,7ko hedapenarekin (CIESen datuak dira, 2007koak, ADN sartuta) eta Diario de Noticias, berriz, inbertsioaren % 29 hartu zuen, irakurleen % 24,4 edukita. Azkenik, ADNn inbertsioaren % 3,2 hartu zuen, irakurleen % 16,8arekin, nahiz eta eragin horietarako gogorarazi behar den ADN doanekoa dela.

Prentsa nazionalari erreparatuta, nabarmentzekoa da El País egunkariak, inbertsioko 407.475 euroekin, atal honetako gastuaren % 56,2 hartu zuela, El Viajero gehigarrian jarritako turismo-iragarkiengatik.

Aldizkariak, Nafarroako tokiko aldizkariak nahiz nazio-estaldura dutenek, 620.499 euroko inbertsioa hartu zuten, 2006an baino % 37 gehiago. Igoera horren arrazoia da, neurri handi batean, nazio-aldizkarietan eta bidaia-aldizkarietan jarritako turismo-iragarkien presentzia lehengora itzuli dela. Gainera, hazi egin da Nafarroako tokiko aldizkarietan egindako inbertsioa. Oro har, ehun aldizkari baino gehiagotan jarri ziren iragarkiak.

ZABALKUNDE BIDEAK: IKUS-ENTZUNEZKOAK. Ikus entzunezkoen sektoreari dagokionez, nabarmentzekoa da, zenbaki absolutuetan, telebistan egindako inbertsioa, aurreko urtekoaren aldean behera egin badu ere, eta irratiko inbertsioa handitu izatea. Zehazki, 1.078.576 euro erabili ziren telebista spotak egiteko (2006an baino % 36,7 gutxiago). Zenbateko hori publizitatean egindako inbertsio guztiaren % 17 da; aurreko urtean, berriz, % 31 zen. Beherakada hori azaltzen da gastu txikiagoa egin delako nazio esparruko turismo-kanpainaren barruan, eta tokiko kateetako mikrosailak desagertu direlako.

Honakoa izan zen irratien banaketa, inbertsio handienetik inbertsio txikienera: 299.000 euro TVEn (% 41 gutxiago 2006an baino), nahi zeta lehenengo postua betetzera pasa eta sektorera bideratutako guztiaren % 21 hartu. Ondotik, Tele 5 dator. Lehenengo aldiz agertzen da, 268.861 euroekin (inbertsioaren % 18,8). Ondoren datoz Antena 3, 155.311 euroekin (% 77 gutxiago 2006an baino eta inbertitutako guztiaren % 10,8) eta TV3 (109.950 euro, % 24 gutxiago eta gutzitzkoaren % 7,7).

Distantzia handira datoz Cuatro (76.779 euro eta gutzitzkoaren % 5,5) eta Gaztela Leongo Canal 4n (34.884 euro eta gutzitzkoaren % 2,4). Azkeneko tokietan daude Gaztela-Mantxako La Tribuna TV (11.753 euro), Intereconomía TV (13.212) eta Aragón TV (11.661 euro), gutzitzkoan garrantzi txikia dutenak.

Tokiko esparruan, beherakadak nabarmenak izan dira eta haien arrazoia izan da, aipatu den bezala, Nafarroako Gobernuak babestutako aholkuen mikrosailak desagertu direla. Hartara, Canal 6en inbertsioa 25.465 eurokoa izan da (2006an baino % 77 gutxiago); Canal 4n 18.598 eurokoa izan da (-% 68,8) eta Popular Televisiónen 14.486 eurokoa (- % 72,7), guztiak ere inbertsio guztiaren % 1 inguru dutela.

Aitzitik, hazkunde handia izan zuten, zenbatekoa bikoiztu baitzuten, zinema-aretoetan botatuko spotek (149.160 euro), dela hedabide hori guztiz egokia delako kanpainaren xedea den populaziora iristeko (drogen kontsumoari aurrea hartzearen kasuan) dela kanpaina gehiago programatu direlako, horren barne dela turismo kanpaina, zeina foru erkidegoan bertan ere zabaldu baitzen

Bestalde, irati-iragarkien inbertsioak 333.567 euro egin zuten. Zenbateko hori 2006an inbertitutakoaren halako hiru da. Beste behin, justifikatuta dago aurrez azaldutakoarengatik (kanpaina gehiago egin dira, eta bereziki turismo-kanpaina da aipatzekoa).

Inbertsioaren banaketa honako hau da: Cadena Sere 53.884 euro Portu zituen (gutzitzkoaren % 16 eta aurreko urtean baino % 95 gehiago), Onda Cerok 43.167 euro hartu zituen (gutzitzkoaren % 12,9 eta % 56,9 gehiago) eta Cope Navarrak 42.454 euro eskuratu zituen (gutzitzkoaren % 12,7 eta % 33,5 gehiago).

Nazio mailako estaldura duten irratietan honakoa izan zen banaketa: 29.795 euro Copen, 29.396 euro Onda Ceron, biak ere kontratazioaren % 8 ingururekin, eta 10.674 euro (gutzitzkoaren % 3,1) Seren. Musika kateek ere igoera handiak izan dituzte. Hauexek dira datuak: 40 Principalesek,

28.193 euroekin, lehenengo inbertsioaren bost halakoa jaso du; Cadena 100ek (14.400 euro), Kiss FMk (12.777 euro) eta Europa FMk (12.520 euro) lehen jasotakoaren 2, 3 edo 4 halakoa jaso dute.

Atal hau osatzen da irratien beste dozena erdi batekin, Catalunya Radiotik hasi eta nazio mailako Kiss FMraino, tokiko beste batzuetatik igarota (Onda Ribera, Punto Radio Estella, Xorroxin Irratia eta abar), zeinek 4.000 eurotik beherako inbertsioak hartu baitituzte.

KANPOKO EUSKARRIAK. Kanpoko euskarriek (markesinak eta hesiak) 175.897 euroko gastua ekarri zuten (2006an baino % 81 gehiago). Horiei banderatxoetan gastatutako beste 16.560 euro gehitu behar zaizkie. Bestalde, beste 92.589 euro erabili ziren sustapen objektu batzuetarako (boligrafoak, egutegiak, orrialde-markatzaileak eta abar), aurreko urteko kopuruaren bi halakoa hain zuzen; beste 67.261 euro liburuxkak egiteko erabili ziren (% 73 gehiago) eta 23.321 euro, azkenik (% 200 gehiago) afixak egiteko.

Halaber, guztira 153.154 euro inbertitu ziren (% 210 gehiago) interneteko atarrietako publizitatean; 64.452 euro (% 10 gutxiago) kanpainak sustatzeko zenbait ekintzatan (azafatak, aurkezpenak, zizkamizkak eta abar), 37.585 euro zenbait materialetan (txartel handiak, zorionak emateko txartelak, aurkezpenetarako afixak, DVDak eta abar).

Atal honetan, ia guztiek igoerak izan arren, publizitate-jarduerak, orokorrean, gora egin duela, nabarmentzekoa da interneten egindako inbertsioa, turismoa sareko atarrietan banatzearen ondorioz.

SORMENAREN ETA EKOIZPENAREN KOSTUA. Jatorrizko dokumentuak, idatzizkoak nahiz ikus-entzunezkoak, diseinatu eta sortzeko kostua 448.889 eurokoa izan zen (2006an baino % 32,5 gehiago). Kopuru horretatik, 240.570 euro telebistako spotei dagozkie (% 66 gehiago), 102.832 euro (% +20,7 gehiago) prentsa arruntean iragarriak ateratzeari; 50.891 euro (% 15 gehiago) sormena duten iragarkien produkzioari; 21.833 euro (% 95 gehiago) zinemarako spotak egiteari (kineskopatua eta zintak); 19.595 euro (% 200 gehiago) irati-iragarkiak egiteari eta 10.935 euro aldizkarietarako iragarkiak egiteari eta egokitzeari. Bestalde, markesinetako, liburuxketako eta beste euskarri batzuetako sormen-laneko gastua produkzio-kostuaren barrenean dago.

Atal honetan, nabarmentzekoa da telebista spotek gora egin dutela. Horren arrazoia da metraje luzeagoko (30'' y 45'') ikus-entzunezkoak erabili direla, bai eta nazio mailako produktoreen kontratazioa eta anbizio handiagoko bitartekoen

erabilera ere. Metraje luzeagoa erabiltzeak garestiago egin du spotak zinemetarako egokitzeko gas-tua.

Bestalde, irрати-iragarkien produkzioan gertatutako igoeraren arrazoia da Nafarroarekin mugakideak diren probintzietarako turismoari buruzko irрати-mikrosailak grabatu direla. Prentsako iragarkien produkzioan izandako igoeraren arrazoia da prentsa-iragarkien produkzioa garestitu dela agenzia adjudikazio-hartzaileen eskaintzetan bildutako diseinuak prezio handiagoa izan duelako; igoera hori konpentsatu da tarifetan lortu diren beherapen handiagoekin.

Laburbildurik, honakoak dira Nafarroako Gobernuaren publizitate-inbertsioaren zenbatekoak (BEZa barne):

- 2003. urtea: 2.735.578 euro.
- 2004. urtea: 2.827.623 euro.
- 2005. urtea: 3.619.339 euro.
- 2006. urtea: 5.482.007 euro.
- 2007. urtea: 6.311.532 euro.
- 2008. urtea: 6.876.104 euro.

- 2009. urtea: 5.378.129 euro.
- 2010. urtea: 2.821.106 euro.
- 2011. urtea: 2.350.919 euro.
- 2012. urtea: 1.414.383 euro.

Enpresa publikoek egindako publizitateari dagokionez, enpresa bakoitzak egindako publizitatearen xehetasunak gehitu ditugu, haiek emandako informazioari jarraituz.

Foru erkidegoko hedabideentzako laguntzei dagokienez, Nafarroako Gobernuak, 2003tik 2012ra, bi laguntza mota eman izan dizkie foru erkidegoko hedabideei:

a) Ikus-entzunezkoak sustatzeko laguntzak, soilik TDTko lizentzia (autonomikoa nahiz tokikoa) duten telebistei zuzenduak. 2006tik Nafarroako aurrekontuetan jasotako gastu-kontusail bat da; horrenbestez, ezaguna da. Horietatik, 2006an, 2007an, 2008an, 2009an eta 2012an, laguntzak lehia-araubidean eman dira; 2010ean eta 2011n, ordea, kontusail izendunak izan ziren, orduan emittitzen zuten Nafarroako hiru telebistentzakoak. Honakoak izan ziren laguntzak ordaintzeko ebazpenak, emandako diru-laguntzaren esparrukoak, behin telebistek gastuak justifikatu ondoren:

	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012
CANAL 4	513.575,8 €	1.009.678,4 €	994.336,3 €	833.319,1 €	817.868,4 €	800.000 €	–
CANAL 6	502.915,2 €	1.004.166,1 €	1.000.030,5 €	1.193.975,1 €	1.000.000 €	800.000 €	–
POPULAR TV	483.509,0 €	982.212,7 €	995.717,3 €	892.335,5 €	1.000.000 €	800.000 €	–
NAVARRA TV	–	–	–	–	–	–	1.900.000 €
GUZTIRA	1.500.000 €	2.996.056,8 €	2.999.084,1 €	2.919.629,7 €	2.817.868,4 €	2.400.000 €	1.900.000 €

b) Euskara sustatzeko laguntzak. Euskarabide-Nafarroako Euskararen Institutuaren bitartez eta Komunikazio Zuzendaritza Nagusiaren laguntza teknikoarekin, laguntza publiko batzuk eman dira hizkuntza hori Nafarroako hedabideetan sustatzeko (euskaraz lan egiten dutenetan nahiz gaztelaniaz lan egin baina euskarazko eduki batzuk

ematen dituztenetan). Laguntzen xehetasunak erantsitako Excel taula batean ikus daitezke.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2013ko uztailean

Bigaren lehendakariorde eta eleduna: Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia

Galdera, Sarrigurenerako hezkuntza dotazio publikoen planari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Miren Julia Aranoa Astigarraga andreak Sarrigurenerako hezkuntza dotazio publikoen planari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2013ko ekainaren 10eko 63. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2013ko uztailaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Miren Aranoa Astigarraga andreak idatziz erantzuteko galdera egin du Sarrigurenerako hezkuntza-dotazio publikoen plan bat aurkeztearekin lotutako gai batzuei buruz eta, zehazki, Haur Hezkuntzako lehen ziklorako, Haur Hezkuntzako bigarren ziklorako, Lehen Hezkuntzarako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzarako azpiegiturei buruz (8-13/PES-00086). Hauxe erantzun dio Nafarroako Gobernuak Hezkuntzako kontseilariak, dagokion zerbitzuak egindako txostenean oinarriturik:

1.- Azpiegiturak

A) Haur Hezkuntzako lehen zikloa: Sarrigurengo herritarrek, gaur egun, honako azpiegitura publikoak daukate, Eguesibarko Udalaren titularitatekoa, guztiak ere 1998tik aurrera jardueran hasitakoak:

Eguesibar I: 2 unitate.

Eguesibar II: 6 unitate.

Eguesibar III: 10 unitate.

Ziklo honetarako etorkizuneko eskaintzaren beharrianak eta plangintza aztertzea toki entitateari dagokio; halaber, bera da eskuduna azpiegitura berriak sortzeko ekimena abiatzeko, antzemandako beharrei erantzuteko halakorik behar bada.

B) Haur Hezkuntzako bigarren zikloa eta Lehen Hezkuntza: Sarrigurengo herritarrek gaur egun Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publiko bat daukate, dauden matrikula-aurreikuspenen arabera, 2013-2014 eta 2014-2015 ikasturteetako eskolatzeko-behar guztiak hartzeko behar diren

dotazio guztiekin. Izan ere, bigarren ikasturte horretan beteko da guztiz ikastetxe hori.

2015/2016 ikasturtean, gora egiten dute eskolatzeko-beharrek, eta gora egite hori ezin izanen da barneratu egungo instalazioekin (50-53 talde), eta datozen ikasturteetan ere pixkanaka gora egiten joanen da taldeen kopurua, 2021/2022 ikasturtera arte. Hurrengo ikasturteetan, berriz, aurreikusita dago taldeen kopuruak behera egitea.

Behar horiei erantzuteko, Hezkuntza Departamentuak aurreikusita dauka Haur eta Lehen Hezkuntzarako instalazio bat egitea, hiru lerro oso (27 unitate) hartzeko ahalmena izanen duena: Lehen Hezkuntzarako 18 gela arrunt, bikoiztutako 6 gela, Haur Hezkuntzako 9 gela arrunt, psikomotritate-rako aretoa; balio anitzeko 3 gela, erabilera anitzeko aretoa, liburutegia, gimnasioa, irakasleentzako aretoa, zuzendaritzarako, orientaziorako eta idazkaritzarako bulegoak eta gurasoen elkartearentzako aretoa.

Ikastetxe berria egungo ikastetxearen ondoko lursailean egin ahalko da, halako moduz non bi erakinak konektatuta egonen dira. Horrekin, izan ere, hezkuntza eskaintza egituratzeko aukera ugari erraztuko dira. Aukera horrek bidea emanen luke ikastetxearen antolaketa ikasturte bakoitzean doitzeko, familien eskaria dela-eta sortutako beharren arabera, bai hezkuntza maila dagokienez, bai hizkuntza ereduari dagokienez ere.

C) Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza. Sarrigurengo populazioak behar adina azpiegitura dauka bere barrutian. Hori dela eta, ez dago aurreikusita epe labur edo ertainean hezkuntza maila horretarako azpiegiturarik sortzea.

2. Haur eta Lehen Hezkuntzaren mailarako instalazio berria bi edo hiru fasetan gaitu ahalko da. Lehenengoak Haur Hezkuntzako 9 unitatetarako tokia, gimnasioa eta irakasleentzako eta administrazioarako instalazioak izanen ditu. 2015eko iraileko egon beharko du prest. Bigarrena 2016/2017 ikasturtearen hasierarako egonen da prest, eta honakoak hartzeko gaitasuna izanen du: Lehen Hezkuntzako 6 gela, bikoiztutako 2 gela, balio anitzeko gelak, liburutegia eta erabilera anitzeko aretoa. Gainerako esparruak, 27 unitate osatzerainoak, hirugarren faserako utz daitezke.

3. Une hauetan, ez da aurreikusten departamentuak inongo neurri iragankorrik hartu behar izatea udal titularitateko ikastetxean, aurreko pun-

tuan aipatzen den Haur eta Lehen Hezkuntzako instalazioaren jarduera hasi aurretik.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2013ko uztailaren 1ean

Hezkuntzako kontseilaria: José Iribas Sánchez de Boado

Galdera, Zangozako San Salvador elizari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Amaya Zarranz Errea andreak Zangozako San Salvador elizari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2013ko ekainaren 10eko 63. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2013ko uztailaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularrari atxikitako foru parlamentari Amaya Zarranz Errea andreak idatziz erantzuteko galdera egin du Zangozako San Salvatore elizaren planoari buruz (PES-00091). Hauxe erantzun dio Nafarroako Gobernuak bigarren lehendakariorde, eledun eta Kultura, Turismo eta Erakunde Harremanetako kontseilariak:

Zangozako San Salvatore eliza interes kultural-leko ondasun deklaraturik dago (apirilaren 9ko 86/2001 Foru Dekretua). Eraikina Zangozako Santa Maria parrokiaren menpe dago. Orain dela hamabost urte inguru ez du kulturik –ordura arte ere, noizbehinka izaten zuen?, zeren eta koruko bobedak, sarbideko atearen ondoan dagoenak, eman egin baitu, nabeko hormak zabaltzearen ondorioz, eta oso arrailduta baitago.

Eraikinaren planorik ez dago. Orain dela hogei hamar urte, nabeko estalkia aldatu zen, eta 1998an dorreko estalkia konpondu zen. Orduan, dorreko estalkiaren planoak egin ziren. Horrez gain, ez dago beste planorik, paperean orain dela hogei urte inguru marraztutako planta bat ez bada.

Horrenbestez, elizaren altxaera oso bat behar da, ordenagailuz eginga. Lehenik, monumentuari buruzko dokumentazio osoa izateko, daukan garrantzi historiko eta artistikoa dela eta. Bigarre-

nik, alboetako hormen eta nabeko nahiz koruko bobeden egiturazko deformazioak ebaluatzeko, eta zein konponketa egin daitezkeen aztertzeko. Hirugarrenik, hormetako pinturen egoera eta haien balizko zaharberritzea aztertzeko.

Planoen altxaera hori 2013-2006 aldiko Nafarroako kultur ondarearen urte anitzeko planeko 2.8 ekintzan aurreikusitakoen artean dago.

Nafarroako Gobernuak 2013ko apirilaren 17ko erabakiaren bidez baimena eman ondoren, ekainaren 16ko 205/2013 Ebazpenaren bidez baimena eman da Zangozako San Salvatore elizako planoen altxaerarako laguntza tekniko kontratatzeko, 48.700,08 euroko aurrekontuarekin, eta José Joaquín Garraldari adjudikatu zaio, 44.830 euroan.

Baliabide berekirik ez zegoela eta, kontratazioa Kontratu Publikoari buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legeko 50.1.c) eta 70. artikuluetan jasotako prozedura negoziatuaren bidez egin da, Europar Batasunean publizitaterik egin gabe, 73.3.d) artikuluan jasotakoaren arabera. Izan ere, aurrekontua, BEZik gabe, 90.000 eurotik beherakoa da. Adjudikaziorako irizpide bakarra eskaintako prezioa izan da, 51.1.a) artikuluan ezarritakoaren arabera.

2013ko apirilaren 19an, hiru arkitekto eskatu zitzaizkien eskaintza egiteko: Aitor Ramírez Rico, José Joaquín Garralda Guillem eta Laura Elvira Tejedor..

Hona egindako eskaintzak:

Aitor Ramírez Rico 47.969,57 euro

José Joaquín Garralda Guillem
44.830,00 euro

Laura Elvira Tejedor 47.726,00 euro

Horrenbestez, lanak ekonomikoki aldekoena zen eskaintzari adjudikatu zitzaizkion.

Exekuzio epea zortzi hilabetekoa da.

Planoen altxaera aldez aurreko baldintza bat da gero obra-proiektuak egiteko, eta Zangozako San Salvatore eliza da aipatutako urte anitzeko planean jarduteko aurreikusitako erakinetako bat. Hori, halere, ez da eragozpena plan horretako 4.1.5.2. ekintzan finkatutako hautapen- eta lehenespene-irizpideak aplikatzeko.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2013ko ekainean

Kultura, Turismo eta Erakunde Harremanetako kontseilaria: Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia

Galdera, Nafarroako Museoen Sistema osatzen duten entitateei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Amaya Zarranz Errea andreak Nafarroako Museoen Sistema osatzen duten entitateei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2013ko maiatzaren 28ko 57. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2013ko uztailaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularrari atxikitako foru parlamentari Amaya Zarranz Errea andreak idatziz erantzuteko galdera egin du Nafarroako Museoen Sistema osatzen duten entitateei buruz (PES-00078). Hauxe erantzun dio Nafarroako Gobernuko bigarren lehendakariorde, eledun eta Kultura, Turismo eta Erakunde Harremanetako kontseilariak:

10/2009 FORU LEGEA, uztailaren 2koa, Nafarroako Museoei eta Bilduma Museografikoei buruzkoa.

11. artikulua. Osaera. Hauek dira Nafarroako Museo Sistemaren partaideak:

a) Museoen arloko eskumena duen departamentukoak edo hari atxikita izanik, museoen kudeaketarekin zerikusia duten administrazio unitate eta organoak. Departamentuaren ardura izanen da sistemaren zuzendaritza eta koordinazioa.

b) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren titulartasuneko museo eta bilduma museografiko iraunkorrak.

c) Halako museo eta bilduma museografiko iraunkorrak, non haien administrazio, zuzendaritza edo zaintza organoetako kideen erdiak edo gehia-

go Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak izendatu dituen.

d) Nafarroako Foru Komunitatearentzat interesgarriak izanik, Nafarroako Museoen Sistemaren borondatez sartzen diren gainerako museo eta bilduma museografiko iraunkorrak. Atxikipena erakunde horietako titularraren eta museoen arloko eskumena duen departamentuaren arteko hitzarmenaren bidez eginen da, bost urterako gutxienez.

Horrenbestez, aipatutako foru legeko 11. artikuluan xedatuaren arabera, gaur egun honakoek osatzen dute Nafarroako Museoen Sistema:

- Nafarroako Gobernuko Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetarako Departamentuko Museoen Zerbitzua.

- Nafarroako Museoa

Santo Domingo, 47. 31001 Iruña. Titularra: Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa

- Karlismoaren Museoa. Rúa 27-29, 31200 Lizarra.

Titularra: Nafarroako Foru Administrazioa

- Jorge Oteiza Museoa Fundazioa – Aldapa kalea 24. 31486 Altuza.

Titularra: Jorge Oteiza Museoa Fundazioa.

Hitzarmena 2010eko ekainaren 14an sinatu zen. Indarraldia: bost urte.

- Gustavo de Maeztu Museoa. San Nicolas 1. 31200 Lizarra.

Titularra: Lizarrako Udala

Hitzarmena 2010eko ekainaren 14an sinatu zen. Indarraldia: bost urte.

- Muñoz Sola Arte Modernoko Museoa. Plaza Zaharra 2. 31500 Tuteria.

Titularra: Tuterako Udala.
 Hitzarmena 2010eko ekainaren 14an sinatu zen. Indarraldia: bost urte.
 Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2013ko uztailean
 Kultura, Turismo eta Erakunde Harremanetako kontseilaria: Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia

Galdera, iruzurraren eta ezkutuko ekonomiaren aurkako borrokaren jarraipen eta ebaluazioa egiteko lan batzorde iraunkorrari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramirez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, iruzurraren eta ezkutuko ekonomiaren aurkako borrokaren jarraipen eta ebaluazioa egiteko lan batzorde iraunkorrari buruzkoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2013ko ekainaren 10eko 63. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2013ko uztailearen 5ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du iruzurraren eta ezkutuko ekonomiaren aurkako borrokaren jarraipen eta ebaluazioa egiteko lan batzorde iraunkorrari buruz (PES-89). Hauxe erantzun dio Nafarroako Gobernuak: Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilariak:

Iruzur Fiskalaren aurkako Neurriek buruzko apirilaren 17ko 14/2013 Foru Legeko seigarren artikuluan (2013ko apirilaren 29ko NAO), honakoa ezarri zen:

“Foru lege hau onetsi eta hiru hilabeteko epean, iruzurraren eta ezkutuko ekonomiaren aurkako borrokaren jarraipen eta ebaluazioa egiteko Lan Batzorde Iraunkorra eratuko da. Batzorde hori osatuko dute Nafarroako Gobernuak ordezkari batek, parlamentu-talde bakoitzeko ordezkari batek, Nafarroan ordezkari handiena duten gutxienez lau sindikatuak ordezkariak eta beste entitate sozioekonomikoko ordezkariak, eta haren xedea izanen da arlo horretako jarduketak aztertea, proposamenak egitea eta iruzur fiskalaren

aurka borroka egiteko diseinatzen diren jarduketa planen eta neurrien jarraipena egitea.

Aipatu Batzorde Iraunkorra hiru hilabete behin bilduko da, gutxienez.”

Aferaren egoera

14/2013 Foru Legearen seigarren artikuluan testuan, gainerakoan ez bezala, ez da esaten Nafarroako Gobernuak eratu behar duenik batzordea. Hori dela eta, Nafarroako Zerga Ogasunak egin duen interpretazioaren arabera, lege-xedapen bat denez, legegintza-botereak dauzka hura eratzeko eta antolatzeko autoritate eta eskumen handiagoak.

2013ko ekainaren 26an, Nafarroako Zerga Ogasuneko ordezkari batzuek bilera bat izan zuten Nafarroako Parlamentuan arlo fiskala lantzeko sortu den lantaldearekin. Hartan, izan ere, xehetasunekin azaldu zen neurri hori eta Nafarroako Gobernuak aurrera eraman beharreko gainerakoak zertan diren. Zehazki, Bildu-Nafarroaren ordezkari gisa Amezqueta jauna egon zen bilera horretan, eta gaiari buruzko azalpenak eta dokumentazioa jaso zituen.

Hartan, Nafarroako Zerga Ogasunak honako bi proposamen hauek egin zituen:

– Neurriaren denborazko egokitasunari buruzkoa: logikoagoa izanen litzateke jarraipen batzorde bat eratzeari buruzko enkargu honen aurrekoak diren bi enkarguak ikusita, nola baitira ezkutuko ekonomiari buruzko azterlan bat eta iruzur fiskalaren aurkako plan bat egitekoak, batzorde hori aurreko bi egiteko horiek amaitu ondoren eratzea (2014ko apirilean).

– Jada Nafarroako ezkutuko ekonomiaren eta aitortu gabeko enpleguaren aurkako planaren jarraipenerako batzorde bat badago, Estatuko Administrazio Orokorak (Lan Ikuskaritza), Nafarroako

roako Gobernuak, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak, Nafarroako Enpresarien Konfederazioak, Unión General de Trabajadores eta Langileen Batzordeak 2012ko abenduaren 10ean izenpetutako erakundeen arteko akordioaren hari-ara sortu zena. Akordio hori zabalik dago hartara bildu nahi diren erakunde eta entitateentzat. Hori dela eta, interesgarritzat jotzekotan hura zabaltzea planteatu liteke.

Ponentziarako bilerara joan ziren parlamentutaldeek, Nafarroako Zerga Ogasuneko ordezkariak beraiek eginiko laburpenaren arabera, honakoa erabaki zuten:

“Jarraipen batzordea eratzeko erabaki da 2014ko martxora arte itxarotea, orduan edukiko baitira ezkutuko ekonomiari buruzko azterlan eta

2013-2017 urteetarako iruzur fiskalaren aurkako plana. Parlamentua arduratuko da hura eratu eta izendapenak egiteaz. Bitartean, Nekane Iriarteren bitartez, 2012ko abenduaren 10eko “Nafarroako ezkutuko ekonomiaren eta aitortu gabeko enpleguaren aurkako planeko erakundeen arteko akordioaren” arabera eratu den jarraipen batzordearen informazioa eta aktak helaraziko dira. Manu Ayerdik adierazi du jarraipen batzorde horretara joateko interesa duela; horrenbestez, batzorde horretako kideei adieraziko zaie nahi hori”.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2013ko uztailaren 1ean

Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

Galdera, Nafarroako ezkutuko ekonomiaren errealitatea zehazteko eta aztertzeke ikerlanari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramirez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Nafarroako ezkutuko ekonomiaren errealitatea zehazteko eta aztertzeke ikerlanari buruzkoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2013ko ekainaren 10eko 63. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2013ko uztailaren 5ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Nafarroako ezkutuko ekonomiaren errealitatea zehaztu eta aztertzeke ikerlanari buruz (PES-90). Hauxe erantzun dio Nafarroako Gobernuak Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilariak:

Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzko abenduaren 26ko 21/2012 Foru Legeko seigarren xedapen gehigarriaren bitartez, Nafarroako Gobernuak premiaturatu zen azterlan bat egin zezan Nafarroako iruzur fiskalaren eta ezkutuko ekonomiaren tamainari buruz. Hona xehetasunak:

Nafarroako Gobernuak azterlan bat egingen du, foru lege hau onetsi eta urtebete baino lehen, Nafarroako iruzur fiskalaren eta ezkutuko ekonomiaren tamainari buruz, desagregazioa eginez lurraldearen, sektoreen eta zergen arabera, eta aipatu azterlan eguneratuko du bi urtean behin, Europar Batzordeak ezartzen duen metodologiaren aurrerabideen arabera. Txosten hori Nafarroako Parlamentuari igorriko dio, eztabaida dezan.

Nafarroako Zerga Ogasunak bi aukera aztertu zituen azterlan hori egiteko:

– Foru Administrazioaren baliabideekin egitea.

– Arloko adituengana jotzea, Foru Administrazioaz kanpoko pertsonengana.

Foru Administrazioak arloan daukan esperientzia falta eta emaitzek objektibotasunik ez dutela esan ahal izateko aukera direla eta, bi aukeretatik bigarrena hautatu zen, aurrekontuan dirurik izatekotan, betiere.

Iruzur Fiskalaren aurkako Neurriei buruzko Foru Lege proiektua Parlamentuan eztabaidatu ondoren, behin egiaztatu ondoren enkargu hori ez zela aldatuko (komeni da gogoraraztea Bildu Nafarroak eta Nafarroa Baik bi zuzenketa aurkeztuak dituztela, 21/2012 Foru Legeko seigarren xedapen gehigarria aldatzeko), Nafarroako Zerga

Ogasuna, 2013ko apirilean, harremanetan jarri zen Ignacio Mauleón jaunarekin (haren curriculuma erantsi dugu; zehazki aipatzen dugu "La Economía sumergida en España" liburuaren egilea dela; liburu hori FUNCASEk argitaratu zuen 2011n), jakite aldera lana egiteko interesik eta modurik ba ote zuten.

Telefonoz zenbait aldiz hitz egin ondoren eta mezu elektroniko batzuk elkarri bidali ondoren, 2013ko ekainaren 13an bilera bat egin genuen Nafarroako Zerga Ogasunaren egoitzan Mauleón jaunarekin eta Jordi Sardá jaunarekin. Bilera horretan zehaztu genuen nola egin zitekeen azterlana, Parlamentuak exijitzen zuen zehaztasun mailara iritsi ote zitekeen, foru erkidegoari buruzko zein informazio behar zuten, txostena noiz aurkeztuko zuten eta zein kostu izanen zuten.

Ekainaren 20an, Mauleón jaunak, posta elektronikoz, bere proposamen tekniko eta ekonomikoa helarazi zizkigun. Erantsi egin ditugu.

Gaur den egunean, oraindik ere ez da kontratua sinatu, prezioa dela-eta akordio batera iritsiko garelakoan.

Amaitzeko datari dagokionez, egile hauekin kontratatzen bada, 2014ko martxoaren 31rako amaituko dute.

2013ko ekainaren 26an, Nafarroako Zerga Ogasuneko ordezkari batzuek bilera bat izan zuten Nafarroako Parlamentuan arlo fiskala lantzeko sortu den lantaldearekin. Hartan, izan ere, xehetasunekin azaldu zen neurri hori eta Nafarroako Gobernuak aurrera eraman beharreko gainerakoak zertan diren. Zehazki, Bildu-Nafarroaren ordezkari gisa Amezqueta jauna egon zen bilera horretan, eta gaiari buruzko azalpenak eta dokumentazioa jaso zituen.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2013ko uztailaren 1ean

Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

(Eranskina: aipatutako dokumentuak eskuragarri dituzte foru parlamentariak, Parlamentuaren kudeaketarako Ágora sisteman).

Galdera, zerga-betebeharrak betetzeko herritarrek daukaten erantzukizunari buruz kontzientziatzeko eta hezteko hezkuntza-, informazio- eta komunikazio-estrategiari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramirez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, zerga-betebeharrak betetzeko herritarrek daukaten erantzukizunari buruz kontzientziatzeko eta hezteko hezkuntza-, informazio- eta komunikazio-estrategiari buruzkoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2013ko ekainaren 10eko 63. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2013ko uztailaren 5ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Zerga-betebeharrak betetzeko herritarrek daukaten erantzukizunari buruz kontzientziatzeko eta hezteko hezkuntza-, informazio- eta komunikazio-estrategiari buruz (PES-88). Hauxe erantzun dio Nafarroako Gobernuak Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguako kontseilariak:

Iruzur Fiskalaren aurkako Neurriei buruzko apirilaren 17ko 14/2013 Foru Legeko zazpigarren xedapen gehigarriaren bidez (2013ko apirilaren 29ko NAO), Nafarroako Gobernuak premiatu zen zerga-betebeharren betetzeari buruzko kontzientzia hartzeko estrategia bat diseinatzera. Hauxe dira hitzak:

Nafarroako Gobernuak, foru lege hau onetsi eta sei hilabeteko epean, hezkuntza-, informazio- eta komunikazio-estrategia bat garatuko du, herritarrek kontzientziatu eta erantzukizunean eta tributu-betebeharren betetzean hezteko.

Estrategia horretan zehazturiko helburuen betetze-maila urtero baloratu eta berrikusiko da, eta, horretarako, dagokion jarraipen txostena aurkeztuko da Nafarroako Parlamentuan.

Aferaren egoera:

2008-2012 urteetarako iruzur fiskalaren aurkako planean, Nafarroako Zerga Ogasunak neurrien

zerrenda bat planteatu zuen, "Zergen arloko heziketa zibikoa" izenburuaren pean. Haien xedea da Nafarroako gizartea hezteko gizarte-laguntzaren eta elkartasunaren arloetan. Aurrekontuan diru nahikorik ez zegoenez, ezin izan dira neurri horiek gauzatu. Hori dela eta, behin haiek aztertu eta gaurkotu ondoren, iruzur fiskalaren aurka abian den planean sartu behar dira. Neurri horien kopia bat erantsi dugu.

Halaber, Nafarroako Zerga Ogasuna harremanetan jarri zen María Goenaga Ruiz de Zuazu andrearekin, estrategiarako diseinu bat egiteko aukera aztertze aldera. Uztailaren 4rako bilera bat aurreikusita dago, bertan bere proposamena eta aurrekontua aurkez ditzan. Edukia eta diru-zenbatekoa zein diren, erakunde autonomoak erabaki beharko du hura kontratatu ala ez.

Nafarroako Ogasunak harremanak izandako pertsonari dagokionez, haren curriculum vitae erantsi dizuegu. Gainera, soziologia fiskalaren arloko aditu horrek egiten dituen lanei buruzko Power Point aurkezpen bat ere igortzen dizuegu.

Azterlana amaitzeko aurreikusitako data 2013ko urria da. Hori dela eta, aurreikuspena da arau-xedapenean ezarritako epea betetzea. Halaber, nahiko errealista da pentsatzea txostenean proposatzen diren neurrietako batzuk urtea amaitu baino lehen aplikatzen hastea.

2013ko ekainaren 26an, Nafarroako Zerga Ogasuneko ordezkari batzuek bilera bat izan zuten Nafarroako Parlamentuan arlo fiskala lantzeko sortu den lantaldearekin. Hartan, izan ere, xehetasunekin azaldu zen neurri hori eta Nafarroako Gobernuak aurrera eraman beharreko gainerakoak zertan diren. Zehazki, Bildu-Nafarroaren ordezkari gisa Amezqueta jauna egon zen bilera horretan, eta gaiari buruzko azalpenak eta dokumentazioa jaso zituen.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2013ko uztailaren 1ean

Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguako kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

XII. ZERGEN ARLOKO HEZIKETA ZIBIKOA.

Iruzurraren aurkako planaren barruan, atal berezia eta berariazko bat eduki eskaini nahi diogu iruzur fiskalari aurrea hartzeko baliagarrien gerta daitekeen tresnetako bat izanik ere, bere eraginak epe luzekoak izan ohi direlako agian merezi duen interesa edo garrantzia eman ez zaion bati. Zergen arloko gizarte-laguntzaren eta elkartasunaren balioetan hezteari buruz ari gara.

Gainera, aurrerago zehaztuko dugun bezala, Nafarroaren kasuan hezkuntza eta informazio horiek oraindik ere garrantzi handiagoa hartzen dute. Eta horrelaxe da zeren eta Foru Komunitateak zerga-sistema berekia baitu, eta hura kontserbatzeko eta defendatzeko hari buruzko komunikazioa, informazioa eta berariazko hezkuntza behar baitira, Nafarroako herritarrek ezagut dezaten eta gauza bereki eta baliotsu baten gisara har dezaten; hain zuzen ere, defendatzekoa den zerbaiten gisara ?ez pribilegio baten gisara?, Konstituzioak aitortzen duen eta sustrai historiko sakonak dituen eskubidea baita.

Zergatik zergen arloko heziketa?

Zergak sistema demokratikoaren berezko atal bat dira. Herritarrek beren diru-baliabideen zati bat Administrazio Publikoari ematen dizkiote, azken horrek, Parlamentuan bilduta dauden herriaren ordezkariak hartzen dituzten erabaki politikoak garatu ahal ditzan eta diru-baliabide horiek zerbitzu, azpiegitura eta prestazio publiko bihurtzen.

Afrikako esaera zahar batek hauxe dio: “haur bat hezteko tribu osoa behar da”. Behin baino gehiagotan aipatu izan dugu plan honetan zehar ezen iruzur fiskalaren aurkako borroka ez dela soilik zergen arloko administrazioaren eginkizun bat, zeren eta, neurri handi batean, gizarte osoaren egitekoa baita, bera ukitzen duena eta berari interesatzen zaiona. Eta gizartea eginkizun horretan inplikaturik egoteak eskatzen du haren kideek –helduak, gazteak eta haurrak? ongi jakitea ezen bete-behar sozialak –eta, bereziki, zerga-betebeharra? betetzea zibismoko eta herritartasuneko kontu bat dela, eta lagungarri gertatzen dela gure gizartearen funtzionamendu normalerako, justizia soziale-rako eta elkartasunerako. Zergen arloko erantzukizunak eta betebeharrak herritar orok bere gain hartu, errespetatu eta defendatu behar dituen balioen multzoaren zati bat dira. Eta balio horiek hezkuntza sistemaren bitartez transmititzea faktore erabakigarria da zergen arloko betebeharrak bete daitezen.

Gai honi buruz egin diren azterlan eta inkestek erakutsi dute biztanleriaren gehiengoak (% 75 inguru) uste duela eskola garaian zergen arloari

buruzko heziketa zibikoa ematea modu erabakigarrian lagunduko lukeela helduaroan zergen arloko betebeharrak betetzeko eta zergen inguruko kultura hobetzeko.

Gainera, ogasunari buruzko aditu askok politika fiskalaren eraginkortasuna lotzen dute politika hori zuzentzen eta aplikatzen zaien pertsonen iritziarekin. Horrek berarekin dakar behar bezalako arreta eskaintzea herritarren ideiei, jarrerari, motibazioei eta jokamoldeei, bai eta haien moral pertsonal eta kolektiboari ere. Azken batean, zerga aplikatzen zaioneko elementu subjektiboari.

Hori guztia dela eta, plan honek azpimarra berezia jarriko luke laguntzaren eta elkartasunaren balioen inguruko heziketan. Zeren eta zergen arloko kontzientzia zibikoa, gizarte demokratiko bateko funtsezko balioa dena, landatu eta behar bezala zaindu beharreko balio bat baita, jai, garatu eta erro dadin nahi bada. Eta garapen horretan, heziketak funtsezko papera betetzen du. Balioetan hezteak beste arlo batzuetan –osasuna, higiena, nutrizioa, ingurumena, bide hezkuntza? ematen dituen emaitza onen esperientzia badaukagu, eta haietan guztietan ikus dezakegu gizartearen kontzientzia hobetzen duela. Horrenbestez, zergatik ez toki bat egin zergen arloko heziketari?

Jarduketa arloak eta garatu beharreko ekintzak

Behin heziketak zerga-betebeharrak betetzearen arloko kultura barneratzeko daukan garrantzia azpimarratuta, ulertu behar dugu hiru arlo nagusitan garatu beharko liratekeela:

1. Hezkuntza sistema: balioetan hezteak.

2. Herritarrei prestakuntza eta informazioa ematea zergak ordaintzeko betebeharrari buruz eta beren zergak zerbitzu publiko bilakatzeari buruz.

3. Nafarroako foru sistema fiskalari buruzko berariazko prestakuntza.

Labur bada ere, arlo horiek garatuko ditugu eta horietako bakoitzean egin beharreko jarduketa batzuk azpimarratuko ditugu.

1. Hezkuntza sistema: balioetan hezteak.

Aipagai dugun zergen arloko heziketa ez da mugatzen, inolaz ere, zergei buruzko gai tekniko edo akademikoak irakastera, ez eta zerga-sistema jakin bateko beharkizunen betetzeari buruzko prestakuntza praktikoa batera ere. Aipagai dugun heziketak, Fernando Sáinz de Bujanda ogasun adituaren hitzetan, “heziketa moral” bat izan behar du.

Hartara, heziketa horren funtsezko helburua izanen da ideiak, balioak eta erantzukizun fiskalaren aldeko eta iruzur-jokabideen aurkako jarrerak transmititzea. Zehazki, honakoak hartu beharko lituzke:

- Ondasun eta zerbitzu publikoak, haien balio ekonomikoa eta haien ondorio sozialak identifikatzea.
- Ondasun eta zerbitzu publikoen finantziazio-iturri desberdinak ezagutzea; bereziki zergen arlokoak.
- Zergen arloko erantzukizuna herritarren bete-behar bat dela azpimarratzea, bai diru-sarrereri, bai gastuari dagokienez.
- Guztiona, publikoa, guztion ahaleginarekin lortutakoa eta guztion onerako dena errespetatzaren aldeko jarrera sustatzea.
- Ulertzea bai diru-sarreretik, bai gastu publikoek osotasun bat eratzen dutela, non ekitate, justizia eta elkartasun printzipioek presente egon behar baitute, eta horixe gizarte demokratikoaren oinarrietako bat dela.

Proposatzen da jarduera hauek zeharka sar daitezela ikasketa programetan, lehen hezkuntzan eta bigarren hezkuntzan. Horretarako, Hezkuntza Departamentuarekin eginen da lan, modu koordinatuan. Nafarroako Zerga Ogasunaren kasuan, honakoak izanen lirake Hezkuntza Departamentuarekin koordinatuta egin beharko lirakeen jarduerak:

- Aholkua eta laguntza ematea material didaktikoa prestatzeko, irakasleentzat zein ikasleentzat.
- “On line” prestakuntza-programak diseinatu eta garatzea.
- Prestatzaileentzako prestakuntza eta laguntza.
- Ikasleei Ogasunaren lana erakustea: bulegoetara bisitan joatea, egiten diren lanak azaltzea. Egiteko horrek unibertsitate ikasleak ere hartzen ditu, aurrekoari gehituta ogasunarena etorkizuneko lana garatzeko esparrua izan daitekeela.

2. Herritarrei prestakuntza eta informazioa ematea zergak ordaintzeko betebeharrari buruz eta beren zergak zerbitzu publiko bilakatzeari buruz.

Puntu horren inguruko ekintzak zuzendu behar dira herritarrei informazioa ematera zergak ordaintzeak daukan garrantziari buruz eta hari esker lor daitezkeenei buruz. Zergatik ordaintzen dituzu zergak? Nora doaz zure zergak? Zer egiten da zure zergekin?: Galdera horiei aldizka erantzun behar zaie. Horri dagokionez, errentaren kanpaina une egokia da, zabalkunde-jarduketan bitartez, azaltzeko zertan erabiltzen diren zergadunak ematen dituen baliabideak.

3. Nafarroako foru sistema fiskalari buruzko berriazko prestakuntza.

Nafarroako zerga araubide berekia du, zeina antzinako eskubide historikoetatik datorren eta Konstituzioak babesten duen Hitzarmen ekonomikoaren esparruan sartzen da, horixe baita Nafarroaren eta Estatuaren arteko ituna, non zerga araubidearen berezitasunak errespetatzen diren, baina, halaber, muga batzuk ezartzen diren harmonizazio egokirako eta elkartasuna zaintzeko.

Zalantzarik gabe, zerga araubide bereki hori foraltasunaren gakoa da eta, aldi berean, funtsezko faktorea da gure erkidegoaren aurrerabide ekonomikoa eta sozialerako. Hori dela eta, egokitzat jotzen da gure zerga araubideari, haren garrantziari eta gure garapenerako daukan eraginari buruzko prestakuntza emateko ekintzak egitea. Zehazki, azpimarra jarri beharko litzateke honako hauen transmisioan: funtsezko elementuak, jatorri historikoak, legitimotasuna, berezitasuna, garrantzia eta elkartasun mekanismoak. Prestakuntza horrek irakaskuntzaren arloa ere hartu beharko luke, bai ikastetxeei dagokienez, bai unibertsitate-ikasketa berriazkoei dagokienez ere, informazio eta zabal-kunde orokorraren esparruaz harantzago.

Gure zerga araubidearen oinarritzko fundamentuak ezagutuz baizik ezin izanen dugu hura aintzatetsi eta baloratu eta hari eutsi.

Galdera, jakitekoa zergatik Pertsonen Autonomiarako Nafarroako Agentziak ez duen ekonomialari nahiko izan Banakakoaren Arreta Programako espedienteetako ahalmen ekonomikoko balorazioak egiteko.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Txema Mauleón Echeverría jaunak egindako galderaren erantzuna, jakitekoa zergatik Pertsonen Autonomiarako Nafarroako Agentziak ez duen ekonomialari nahiko izan Banakakoaren Arreta Programako espedienteetako ahalmen ekonomikoko balorazioak egiteko, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2013ko ekainaren 17ko 67. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2013ko uztailaren 16an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Txema Mauleón Echeverría jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du, jakiteko zergatik Pertsonen Autonomiarako Nafarroako Agentziak ez duen ekonomialari nahiko izan Banakakoaren Arreta Programako espedienteen gaitasun-balorazioak egiteko (8-13/PES-00095). Hauxe erantzun dio Gizarte Politiketako kontseilariak:

1. Zer dela-eta Pertsonen Autonomiarako Nafarroako Agentziak ez du aldi batez ekonomialari nahiko izan Banakakoaren Arreta Programako espedienteetako ahalmen ekonomikoko balorazioak egiteko?

Banakakoaren Arreta Programaren onuradunen ahalmen ekonomikoari buruzko balorazioa laguntza teknikoko kontratu baten bitartez egiten da. Kontratua 2012ko abenduaren 31n amaitu zen.

Kontratua amaitu baino lehen, izapide batzuk hasi ziren beste kontratu bat egiteko, Europar Batasuneko gutxieneko zenbatekotik beherako prozedura irekiaren bitartez. Behar zen kreditu-erreserba 2012ko abenduaren 12an esaktu zen.

2013ko urtarrilaren 14a baino lehen, Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Departamentuak kontratua egiteko erreserba hori baliozkotu zuen. Baldintza-orriak 2013ko urtarrilaren 17an jarri ziren Kontratazio Atarian. Eskaintzak aurkezteko epea otsailaren 4an amaitu zen. Hiru entitatek aurkeztu zituzten eskaintzak.

Behin behar ziren izapideak eginda, Pertsonen Autonomiarako Nafarroako Agentziako zuzendari kudeatzailearen martxoaren 15eko 916/2013 Ebazpenaz, kontratua Koine-Aequalitas Fundazioari adjudikatu zitzaion, lizitazioan puntuaziorik altuena lortu baitzuen.

Lizitazioan eskaintza aurkeztu zuen beste entitate bat MM Consulting Financiero, SL izan zen, eta kontratazio publikoaren arloko erreklamazio bat aurkeztu zuen Nafarroako Kontratu Publikoen Auzitegi Administratiboan.

Kontratazio Publikorako Batzarraren Idazkari-tzaren apirilaren 5eko 9/2013 Ebazpenaren bidez, izapidetzeko onartu zen erreklamazioa, eta kontratuaren adjudikazioa eten egin zen.

Nafarroako Kontratu Publikoen Auzitegi Administratiboaren maiatzaren 16ko 4/2013 Erabakiaren bitartez, MM Consulting Financiero SLk aurkeztutako erreklamazioa baietsi zen.

Pertsonen Autonomiarako Nafarroako Agentziako zuzendari kudeatzailearen maiatzaren 20ko 1926/2013 Ebazpenaren bitartez, eraginik gabe utzi zen martxoaren 15eko 916/2013 Ebazpena, eta laguntza teknikoko kontratua MM Consulting Financiero SLri adjudikatu zitzaion.

Behin behar zen dokumentazioa aurkeztuta, maiatzaren 29an, Pertsonen Autonomiarako Nafarroako Agentziaren eta MM Consulting Financiero, SLren arteko kontratua egin zen, eta lanak hasi ziren.

2. Zenbat hilabetez egon da Pertsonen Autonomiarako Nafarroako Agentzia Banakakoaren Arreta Programako espedienteetako ahalmen ekonomikoko balorazioak egiteko ekonomialari nahikorik gabe?

Pertsonen Autonomiarako Nafarroako Agentzia bost hilabetez ezin izan da laguntza kontratu horretaz baliatu.

Nolanahi ere, balorazioa eskatu den presako kasuak Pertsonen Autonomiarako Nafarroako Agentziako langile espezializatuek artatu dituzte.

3. Horrek atzerapenik eragin al du mendekotasunaren balorazioan eta laguntzen ordainketan? Hala bada, zenbatekoa izan da atzerapena? Balorazioarako ezarritako sei hilabeteko epea gorako

atzerapena izanez gero, posible al da epe horretatik aurrerako laguntzen eta/edo prestazioen ordainketa erreklamatzeara?

Administrazioak 6 hilabete dauzka prestazioa edo zerbitzua emateko, hasierako eskaria egiten denetik kontatuta. Epe hori bete eta biharamunean prestazioa jasotzeko eskubidea sortzen da, eta prestazio hori atzeraeraginez ordaintzen zaie.

Gaur den egunean, 189 espediente daude baloratzeko legeak ezarritako 6 hilabeteko epea gaindituta daukatenak; nolahi ere, arestian adierazi bezala, prestazio ekonomikoen kasuan ordainketa atzeraeraginez egingen da, eskaria aurkeztu eta seigarren hilabetetik aurrera.

Gogorazi behar dugu uztailaren 13ko legegintza-aldaketak –20/2012 Errege Lege-dekretua, Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legea aldatzen duena– ahalmena ematen diela autonomia erkidegoei eskubidea ez sortzeko epe hori bi urte eta erdira arte luzatzeko. Nafarroak, ordea, erabaki du prestazioerako eskubidea sortzeko epea sei hilabetekoa izaten jarraitzea.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2013ko uztailaren 12an

Gizarte Politiketako kontseilaria: Íñigo Alli Martínez

Galdera, Nafarroako Gobernuak PFEZaren aitortzea dela-eta eginiko itzulketei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Nafarroako Gobernuak PFEZaren aitortzea dela-eta eginiko itzulketei buruzkoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2013ko ekainaren 24ko 72. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2013ko uztailaren 16an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Nafarroako Gobernuak PFEZaren aitortzea dela-eta eginiko itzulketei buruz (PES-97). Hauxe erantzun dio Nafarroako Gobernuak Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu kontseilariak:

1.- Honakoa da 2012ko PFEZaren kanpainari dagozkion itzulketen zerrenda:

Kontuan noiz ordaindu den	Aitortpen kopurua	Zenbatekoa	Oharrak
10/04/2013	118.078	76.187.275	<i>Proposamenak Proposamenak eta telematikoak Kanpainaren hasiera</i>
19/04/2013	16.105	2.145.043	
19/04/2013	1.302	1.944.811	
22/04/2013	702	970.474	
25/04/2013	21	5.863	
15/05/2013	21.728	28.618.578	
31/05/2013	21.764	21.604.531	
12/06/2013	89	48.768	
28/06/2013	22.556	26.225.805	
Guztira	202.345	157.751.149	

Aurrekoekin batera, beste 4.806 aitorten egon dira zeinetan itzultzekoak diren zenbatekoak guztiz edo zati batean konpentsatu baitira zergadunak aurrez Nafarroako Zerga Ogasunarekin zeuzkan zorrek. Konpentsatutakoaren guztizko kopurua 1.335.878 eurokoa da.

Beste 5.598 aitortzen kasuan, ez da deklarazioaren emaitzako kopurua guztiz itzuli, zeren eta epaitegiek edo beste administrazio publiko batzuek hura osorik edo zati batean enbargatu baitute. Enbargatutakoaren guztizko kopurua 1.308.451 eurokoa da.

Informazio hau prestatzeko egunean (ekainaren 28a), 1.322 aitortzen zenbatekoak itzultzeko daude; 1.180.871 euro egiten dute guztira. Horren arrazoia da, nagusiki, ez-betetze batzuk izan direla beste zerga-aitorten batzuen aurkezpenean.

2.- Planteatzen den bigarren gaia dela eta, erantzun behar da ia ezinezkoa dela itzulketen data gehiago hurbiltzea PFEZaren aitorten egiten diren unera; izan ere, aurreko epigrafeko taulatik ondoriozta daitekeen bezala, itzulketarako eskubidea zuten herritarren erdiak itzulketa hori eskatu ere gabe lortu zuen (proposamenetatik heldutako

itzulketen kasua da hori), eta beste erdiaren kasuan itzulketa hilabeteko epean gauzatu da, beranduenez. Jakin beharra dago itzulketarako dagoen operatiba dela eta, haiek ezin direla egunero egin; izan ere, loteka bildu behar dira. Bestetik, aitortenak direla eta, egiaztatze-prozesu batzuk badaude, eta haien helburua da segurtatzea (ahal den guztian, une horretako informazioaren arabera) zergadunak eskatutako saldoa egiantzekoa dela ? hau da, itxuraz erreala dela?. Horretarako, izan ere, exekuzio-epe gutxieneko bat behar da.

Azkenik, orain arte azaldutakoa berresteko, adierazi beharra dago ezen, Nafarroako Zerga Ogasunak dauzkan datuen arabera, erantzun hau egiteko unean, itzulketa-eskaeren % 99,3ren kasuan dirua itzuli dela, konpentsatu dela edo enbargatu dela; eskaeren % 0,7an baizik ez da falta aurreko eragiketetatik bat edo beste egitea.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2013ko uztailaren 5ean

Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguako kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

Galdera, PFEZaren kanpainan zergaren zenbatekoaren zati baten xedea (Eliza Katolikoa edo helburu sozialak) aukeratzekoan izandako arazoei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, PFEZaren kanpainan zergaren zenbatekoaren zati baten xedea (Eliza Katolikoa edo helburu sozialak) aukeratzekoan izandako arazoei buruzkoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2013ko ekainaren 24ko 72. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2013ko uztailaren 16an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du PFEZaren kanpainan zergaren zenbatekoaren zati baten xedea (Eliza Katolikoa edo helburu sozialak) aukeratzekoan izandako arazoei buruz (PES-98), hau erantzun du Nafarroako Gobernuako Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguako kontseilariak:

1.- Arazorik egiaztatu al da PFEZaren zenbatekoaren zati baten xedea (Eliza Katolikoa edo helburu sozialak) aukeratzekoan dagokionez?

Nafarroako Zerga Ogasunak ez du inongo arazorik egiaztatu herritarrek PFEZaren aitortpena egiteko Nafarroako Gobernuak erabili dituen programetan, % 0,7aren zerga-esleipena hautatzeko orduan.

2.- Hala bada, zer arazo izan dira?

Ez da arazorik izan.

3.- Hala bada, zein herritarrengan izan du eragina?

Ez da ukitutako herritarrik izan.

4.- Kasua bada, herritarrek erabakitzekoa den funts-banaketa hori zuzentzeko zer neurri hartuko ditu Nafarroako Gobernuak arazo horiek konpontze aldera?

Ez da inongo neurri zehatzik ezarri.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2013ko uztailaren 5ean

Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguako kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

Galdera, jakitekoa 2013ra luzatutako aurrekontuen legeak sortutako egoerak eraginik duen Nafarroako Gobernuaren pentsiodunengan.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, jakitekoa 2013ra luzatutako aurrekontuen legeak sortutako egoerak eraginik duen Nafarroako Gobernuaren pentsiodunengan, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2013ko ekainaren 24ko 72. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2013ko uztailaren 18an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak idatzizko informazioa eskatu du Nafarroako Gobernuak pentsioak gaurkotzeari buruz (PES

099/2013). Hauxe da Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariak informatu diona:

Nafarroako Parlamentuak, ekainaren hogeita zazpian, Nafarroako Gobernuaren ekimenez eta aho batez, Nafarroako administrazio publikoen montepioetako funtzionarioen klase pasiboetako pentsioak gaurkotzeari buruzko Foru Legea onetsi zuen.

Foru lege horrek pentsio horien gaurkotzea jasotzen du, 2013ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginekin, Estatuko 2013rako Aurrekontu Orokorren Legean, oro har, finkatutako ehuneko beraren arabera.

Hori guztia, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betetzeke.

Iruñean, 2013ko uztailaren 17an

Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuko kontseilaria: F. Javier Morrás Iturmendi

Galdera, 1.500 metro koadrotik gorako azalera duten saltokiei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak 1.500 metro koadrotik gorako azalera duten saltokiei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2013ko ekainaren 24ko 72. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2013ko uztailaren 23an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du 1.500 metro koadrotik gorako azalera duten saltokiei buruz (8-13/PES-96). Hauxe erantzun dio Nafarroako Gobernuak Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu kontseilariak:

2012. urtearen amaieran, Zuzeneko Tributu, Zehapen eta Errekerimenduen Zerbitzuak, zeina saltoki handien gaineko zerga kudeatzek zerbitzu eskuduna baita, kalkulatu zuen zenbat izan litezkeen ukitutako zergadunak, katastroko guztizko azaleren kalkulua oso orokor baten bitartez, jardueraren ekonomikoen gaineko zergari buruzko datuetan oinarrituta. Kalkulu hori barneko kudeaketara zuzenduta zegoen, eta balizko zentsuaren hurbilketa bat zen, interesdunen aitortpenak jaso aurretik, ustezko establezimendu ukituen ahal den eta zerrendarik luzeena lortzeko. Lehenengo hurbilketa orokor batean, datuak depuratu gabe, 200 establezimendu atera ziren.

Ukitutako establezimenduen amaierako kopurua lortu zen zerrenda hori depuratu ondoren, zerbitzuaren kudeaketaren beraren ondorioz eta deklaraturako datuak egiaztatu ondoren. Horrek, azkenean, zerga ordaindu beharreko 21 establezimenduren zerrenda eman zigun. Horietatik, bost

baztertu ziren, "saltoki handien" izaera ez eduki-tzeagatik, Nafarroako Merkataritzari buruzko uztailaren 12ko 17/2001 Foru Legearen egungo testua-ren arabera. Horrela amaierako zerrenda egin zen, zerga ordaintzen duten 16 zergadunena. 2013ko ekainaren 21eko 118. NAO n argitaratu zen.

Egindako galderei dagokienez.

1. Produktu eta zerbitzuen salmenta eta erakusketarako 1.500 metro koadrotik gorako azalera erabilgarria duten banakako establezimenduak, ez

Iruñean, ez Iruñerrian, ez 12.000 biztanletik gorako udalerrietan ez daudenak, bost dira.

2. Ez Iruñean, ez Iruñerrian, ez 12.000 biztanletik gorako udalerrietan ez dauden produktu eta zerbitzuen salmenta eta erakusketarako 1.500 metro koadrotik gorako azalera erabilgarria duten banakako bost establezimenduen diru-bilketa 35.494,59 eurokoa dela jotzen da. Horrenbestez, guztira exiji daitekeen kopurua 1.343.766,14 eurokoa da.

ESTABLEZIMENDUKO TITULARRA	ESTABLEZIMENDUA	HELBIDEA	ZERGA OIARRRIA	LIKIDAZIO-OIARRRIA	MOTA	TRIBUTU KUOTA
LUISA GORRITI ALDANONDO	MUEBLES AMETS	LESAKA	1.429,09	285,82	12	3.429,82
VENTA PEIO, SL	VENTA PEIO DANTXARINEA	URDAZUBI	2.229,09	1.114,55	12	13.374,57
VENTA PEIO, SL	VENTA LANDIBAR	URDAZUBI	1.844,63	1.291,24	12	15.494,93
DISTRIBUCION SUPERMERCADOS S.L.	HIPER ESMERALDA	TAFALLA	281,47	140,73	12	1.688,80
EROSKI S. COOP.	EROSKI CENTER	AZKOIEN	251,08	125,54	12	1.506,47

3.- Nafarroako Zerga Ogasunaren Erakunde Autonomoaren estatutuen arabera, tributuen arloko gai juridikoak interpretatzeko organo eskudunen argudio juridikoen arabera, honako hauek dira ez Iruñean, ez Iruñerrian, ez 12.000 biztanletik gorako udalerrietan ez dauden produktu eta zerbitzuen salmenta eta erakusketarako 1.500 metro koadrotik gorako azalera erabilgarria duten banakako bost establezimenduak 2012ko ekitaldian saltoki handien gaineko zergaren zergadunen erroldan ez sartzeko (salbuestea ez baizik eta ez sartzea) argudio juridikoak:

Saltoki handietarako zerga bat sortzeari buruzko azaroaren 27ko 23/2001 Foru Legeko 4. artikulua zergaren zergagaia jasotzen du:

"4. artikulua. Zergagaia.

1. Zergagaia txikizkako salmentan diharduten eta behar den merkataritza-baimena duten saltoki eta merkataritza-eremu handi eta indibidualen jarduera eta funtzionamendua da; hain zuzen ere, hiriguneetan eta bertako jardueretan, lurralde-antolamenduan, ingurumenean eta azpiegiturretan eragiten dutelako.

2. Saltoki indibidual handiak dira halakotzat jarduteko baimena jaso dutenak, salmentarako eta produktu eta zerbitzuen erakusketarako 2.500 metro koadro baino gehiago izateagatik, Iruñean eta Iruñerrian eta 12.000 biztanle baino gehiagoko udaletan baldin badaude, edo 1.500 metro koadro baino gehiago izateagatik, Nafarroako Foru Komunitateko gainerako udaletan baldin badaude.

Zerga arautzen duen legearena arabera, zerga hori ordaindu beharko dute "saltoki indibidual handizat" katalogatuta daudenak eta dagokien merkataritza-lizentzia eskuratu dutenak.

Azaroaren 27ko 23/2001 Foru Legea argitaratzeko garaian foru erkidegoan indarra zuen merkataritzari buruzko araudian kontzeptu baliokide bat jasotzen zen eta Nafarroako Merkataritzari buruzko uztailaren 12ko 17/2001 Foru Legeko 17. eta 21. artikuluetan bildutako merkataritza lizentzia berarizakoa lortzeko betebeharra ezartzen zen:

"17. artikulua. Kontzeptua

1. Txikizkako saltoki handizat hartuko dira txikizkako merkataritzan -askotarikoan edo espezializatuan- aritzen diren saltoki indibidual edo kolektiboak, baldin eta produktuak nahiz zerbitzuak saldu eta erakusteko duten azalera erabilgarria 2.500 metro koadro baino handiagoa bada eta Iruñerrian badago, edo, bestela, 1.500 metro koadro baino handiagoa bada, 12.000 biztanle baino gehiago badu eta Nafarroako Foru Komunitateko gainontzeko udaletan badago.

2. Produktuak nahiz zerbitzuak saldu eta erakusteko azalera erabilgarritzat hartuko da produktuak nahiz zerbitzuak erakusgarri izaten dituenak, ohiz ala noizik behinka, bai eta pertsonen pasabide diren lekuak, eta, orobat, produktuak aurkeztu, eman eta kobratzeko diren lekuak.

Ez dira azalera erabilgarritzat hartuko, inola ere, bulegoak, aparkalekuak, jendeak bisita ez

ditzakeen zamalanetarako eremuak eta biltegiak, eta, orokorrean, jendearen sarrera murriztuta duten leku guztiak.

3. Hurrengoak ez dira saltoki handitzat hartuko:

a) Handizkako merkatuak.

b) Udal merkatuak.”

“21. artikulua. Saltoki handirako lizentzia.

1. Saltoki handi bat jartzeko edo handitzeko, eta udal lizentziak eskatu aurretik -saltokia jartzeko lizentzia, obra lizentzia, eta irekitzeko lizentzia-, beharrezkoa da merkataritza-lizentzia berariazko bat, foru lege honen arabera izan behar baita.

2. Saltoki handirako lizentzia beharko da, baita ere, hurrengoetan:

a) Saltokien handitzea 2.500 metro koadro baino gehiagokoa denean, baldin eta proiektu lruñerrirako edo 12.000 biztanle baino gehiagoko udal baterako bada, edo 1.500 metro koadro baino handiagokoa izan eta Nafarroako Foru Komunitateko beste edozein udaletarako denean.

b) Baimendutako saltoki handi batek jarduera edo merkataritza-arloa aldatzen duenean.

c) Saltoki handi bat berriro irekitzen denean, baldin eta urtebete baino gehiago egon bada itxita.

3. 3.-Hurrengoek eskatu beharko dute saltoki handirako lizentzia;

a) Saltoki kolektiboen kasuan, sustatzaileak edo operadoreak, merkataritza-gunea nahiz merkataritza-parkea izan.

b) Saltoki indibidualen kasuan, negozioaren merkataritza titularra edo operadorea.

4. 4.-Ezin izanen da inter vivos laga saltokia irekitzeko lizentzia, baldin eta lizentzia eman duen organoak ez badu aurretik horretarako baimena eman, non eta ez den enpresen arteko bategitea edota eskaera egin duen enpresa ez duen hirugarren batek irensten. Lagapen-hartzailea, edonola ere, lagatzaileak foru- edo udal-administrazioarekin hartutako konpromisoetan subrogatuta geldituko da.”

Hala eta guztiz ere, Barne merkatuko zerbitzuei buruzko 2006/123/EE Zuzentaraura egokitzeko xedez zenbait foru lege aldatzen dituen apirilaren 6ko 6/2010 Foru Lege argitaratu ondoren ?barne merkatuko zerbitzuei buruzkoa da? araudiak “txikizkako saltoki handiaren” kontzeptua aldatzen du eta erabiltzen du soilik produktuak saltzek eta erakusteko 2.500 metro koadrotik gorako azalera erabilgarria dutenentzat, kanpoan utzita ibilgailu nahiz erregaien, makineria industrialaren, lorezaintzako

gaien eta eraikuntza nahiz saneamenduko gaien salmentakoak, bai eta mugaz haraindiko eremuetakoak ere. Saltoki handiak ezartzeko baizik ez da udalez gaindiko plan sektoriala izapidetzeko bete-beharra izanen. Gainerako saltokiek ez dute hala baimenik eskatu beharko.

Hartara, Nafarroako Merkataritzari buruzko uztailaren 12ko 17/2001 Foru Legeko 19. artikulua, Barne merkatuko zerbitzuei buruzko 2006/123/EE Zuzentaraura egokitzeko xedez zenbait foru lege aldatzen dituen apirilaren 6ko 6/2010 Foru Legeko 7. artikulua aldatuak, honako hau dio gaur egun:

“19. artikulua. Merkataritza-establezimenduak baimentzea eta ezartzea udalez gaindiko plan sektorial baten bidez.

1. Merkataritza-establezimendua jartzeko, oro har, ez da baimenik beharko.

2. Operatzaileak edo sustatzaileak sustatutako udalez gaindiko plan sektorial bat izapidetzearen mende geratuko da merkataritza-establezimendu handiak jartzea, bai eta jadanik jarrita daudenak handitzea ere, baldin eta hasierako azalera 500 metro koadro baino gehiago handitzen bada, eta behin bakarrik, foru lege honetan ezarritako irizpideekin bat.

3. Txikizkako merkataritza-establezimendu handitzat hartuko dira txikizkako merkataritza aritzen diren establezimendu indibidual edo kolektiboak, baldin eta produktuak saltzeko eta erakusteko duten azalera erabilgarria 2.500 metro koadro baino handiagoa bada.”

4. Azalera zenbatzerakoan, produktuak saldu eta erakusteko azalera erabilgarriztat edo zerbitzuak erakusteko azalera erabilgarriztat hartuko da produktuak erakusgarri izaten dituen, ohiz ala noizik behinka, bai eta pertsonen pasabide diren lekuak, eta, orobat, produktuak aurkeztu, eman eta kobratzeko diren lekuak. Ez dira azalera erabilgarriztat hartuko, inola ere, bulegoak, aparkalekuak, jendeak bisita ez ditzakeen zamalanetarako eremuak eta biltegiak, eta, orokorrean, jendearen sarrera murriztuta duten leku edo instalazio guztiak.

5. Merkataritza-establezimendu handien kontzeptutik at geratzen dira udal merkatuak eta ibilgailuen nahiz erregaien, makineria industrialaren, lorezaintzako gaien eta eraikuntza nahiz saneamenduko gaien salmentakoak, bai eta mugaz haraindiko eremuetakoak ere.

6. Merkataritza-establezimendu handiak egoitza-erabilera nagusiko lurzoru urbanizagarrietan edo hiri lurzoruetan soilik instalatu ahal izanen

dira. Egoitza-erabilera nagusitzat hartuko da ondo-koa: etxebizitza kolektibo jarraituko 250 etxebizitzako edo 600 biztanleko egoitza-eremua, hektarea bakoitzeko 40 etxebizitzako egoitza-dentsitatea duena. Salbuespen gisa, orobat jarri ahal izanen dira berreskuratutako industria-eremuetan, hiriaren edo hiri-bilbearen zati badira.

7. Artikulu honetako 2. idatz-zatian aipatzen diren plan sektorialekin jarduketaren eremuan indarrean diren lurraldearen antolamenduko tresnen determinazioak bete beharko dituzte, eta, betiere, sortzen den mugigarritasunari buruzko azterlan bat jasoko dute, bai eta Lurraldearen Antolamenduari buruzko Planak eta Nafarroako Gobernu departamentuek eska ditzaketenak ere.”

Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorreko 16. artikulua haxe ezartzen du:

1. Tributu arauak Zuzenbidean onarturik dauden printzipioen arabera interpretatuko dira.

2. Tributu ordenamenduak definitzen ez dituen artean, bere arauetako terminoak adiera juridikoa, teknikoan edo ohikoan, ulertuko dira.

3. Analogia ez da onartuko zergagaiaren eremua edo salbuespen nahiz hobariena bere berezko mugez harantzago zabaltzeko.

4. Araua interpretatzean zalantzarik baldin badago, tributudunari onuragarrien gertatzen zaion irizpidea aplikatuko da.

Zuzenbidean onartzekoak diren interpretazio-irizpideak Kode Zibileko 3. artikuluan ezartzen dira. Izan ere, haren arabera, arauak euren hitzez-hitzeko esanguraren arabera interpretatuko dira (hitzez hitzekotasunaren irizpidea edo irizpide gramatikala), betiere, testuinguruari (irizpide sistematikoa), aurrekari historikoei eta legegintzazko aurrekariari (irizpide historikoa), eta arau horiek aplikatu behar diren garaiko gizarte-errealitateari (irizpide soziologikoa) lotuta, eta, batik bat, arauen espiritua eta xedea kontuan hartuta (irizpide logikoa edo teleologikoa).

Kontuan hartuta azaroaren 27ko 23/2001 Foru Legeko 4. artikuluan interpretatu beharreko araua, eta kontuan hartuta, zehazki, zer interpretatu behar den "saltoki handia"-esaten dugunean, 13/2000 Foru Legearen eta Kode Zibilaren interpretazio arauen arabera:

– Hitzez hitzekotasunaren irizpidea edo irizpide gramatikala aplikatuta, "saltoki handia" terminoa 17/2001 Foru Legean emandako definizioaren eta

betebehar juridikoen arabera interpretatu behar da, zeren eta ez baitago tributu-definiziorik.

– Irizpide logikoa aplikatuta, "saltoki handia" terminoa interpretatu behar da 17/2001 Legean emandako definizioaren eta betebehar juridikoen arabera, zeren eta zergen legegileak merkataritzaren arloko arau substantiboan emandakoaz bestelako definizio bat eman nahi izan bazuen, berariaz erregulatuko zuen. Tributu ordenamenduak definitzen ez dituen artean, bere arauetako terminoak adiera juridikoa ulertuko dira; kasu honetan, horrenbestez, merkataritzari buruzko legearen arabera.

– Irizpide sistematikoa aplikatuta, "saltoki handia" terminoa interpretatu behar da 17/2001 Foru Legean emandako definizioaren eta betebehar juridikoen arabera, zeren eta arau fiskalak eta arau substantiboa ez baitira agindu isolatuak, baizik eta sistema baten atal bat; hau da, arau eta xedapen antolatu eta elkarrekin lotutako multzo bat badago, eta arau horiek elkarrengan eragiten dute helburu bat lortzeko.

– Irizpide historikoa aplikatuta, "saltoki handia" terminoa interpretatu behar da 17/2001 Foru Legean emandako definizioaren eta betebehar juridikoen arabera, zeren eta araua Nafarroan eta zerga-figura bera duten beste autonomia erkidegoetan lantzeko unearen aurrekariak aztertzen baditugu, ikusiko dugu merkataritzaren eta zergen arloko araupetze substantiboak elkarren eskutik doazela saltoki handiei dagokienez. Aztergai dugun kasuari dagokionez 17/2001 Foru Legeari 2010ean aldaketa garrantzitsu bat egin zitzaionez, irizpide historikoa dela eta aplikazioaren unean aintzat hartu behar dugu zein den indarra duen testua.

Eta, azken batez, irizpide teologikoa aplikatuta? aruaren zentzua, izpiritua eta helburua ezagutu nahi ditu?, haren "ratio legis" dela eta, kanpo utzi beharko dira 2010eko apirilaren 15etik aurrera merkataritzaren arauak txikizkako saltoki handitzat hartzen ez dituenak, 2.500 metro koadrotik gorako azalera erabilgarririk ez dutelako, edo ibilgailu nahiz erregaien, makineria industrialaren, lorezaintzako gaien eta eraikuntza nahiz saneamenduko gaien salmentan dihardutelako, edo mugaz haraindiko eremuetan daudelako. Halakoak ezartzeko ez da inongo baimenik behar.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2013ko uztailaren 12an

Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

Galdera, Nafarroak aurten bete beharreko defizit-helburuari buruz Estatuarekin gauzatzen ari den negoziazio-prozesuaren gainekoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Nafarroak aurten bete beharreko defizit-helburuari buruz Estatuarekin gauzatzen ari den negoziazio-prozesuaren gainekoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2013ko ekainaren 24ko 72. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2013ko uztailaren 23an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Nafarroak aurten bete beharreko defizit-helburuari buruz Estatuarekin gauzatzen ari den negoziazio-prozesuari

buruz (8-13/PES-100). Hauxe erantzun dio Nafarroako Gobernuako Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilariak:

Foru parlamentariaren esanetan, berdintasunezko eta aldebiko izaerari ustez uko egin izateari dagokionez, adierazi beharra dago halakorik ez dagoela hemen, zeren eta, nahiz eta Nafarroako Gobernua Zerga eta Finantza Politikako Kontseiluko eskubide osoko kidea izan, defizit helburua, azkenean, hitzarmen ekonomikoan aurreikusitako Koordinazio Batzordearen esparruan negoziatzen da, gaur egun indarra duen hitzarmenaren 67.2.l) artikuluan xedatuaren arabera.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2013ko uztailaren 15ean

Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

Galdera, Genero Indarkeria Errotik Kentzeko Estrategiari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Amaya Zarranz Errea andreak Genero Indarkeria Errotik Kentzeko Estrategiari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2013ko uztailaren 1eko 75. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2013ko uztailaren 30ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularrari atxikitako foru parlamentari Amaya Zarranz Errea andreak idatziz erantzuteko galdera egin du (8-13/PES-00102) iragan ekainaren 17an Madrilen egindako Berdintasunaren Konferentzia Sektorialak onetsitako gai batzuei buruz, genero indarkeria errotik kentzeko lehenbiziko estrategia nazionalaren barruan. Hauxe da erantzuteko daukaguna:

Genero indarkeria errotik kentzeko 2013-2016 urteetako estrategia nazionalak 242 neurri aurreikusten ditu zazpi jarduketa-ardatz estrategikoren araberrakoak. Haien betetzea edo gobernu zentralaren, edo gizarte-entitateen edo autonomia erkidegoen kasuan kasuko arloko eskumenak berenganatuta badituzte? erantzukizuna da.

Neurri horietatik asko jada ezarrita daude edo ezartzen ari dira autonomia erkidegoetan, horietako bakoitzaren genero indarkeriaren aurkako berdintasun politikak noraino garatu diren. Hartara, Nafarroa autonomia erkidegoetan lehenengoetakoa izan da bai genero indarkeria errotik kentzeko lege bereki bat aldarrikatzen --2002an aldarrikatu baitzuen, eta lege nazionala 2004koa da--, eta, halaber, lehenengo autonomia erkidegoa da genero indarkeria errotik kentzeko erakundeen arteko akordio bat izenpetzen. Izan ere, akordio hori instituzio guztiek hartzen duten konpromisoa da lakra horren aurka, genero indarkeriaren kontzeptua zentzurik zabalenean hartuta, hau da, emakumeen aurkako edozein eraso da genero indarkeria, ez soilik etxearen esparruko erasoak, Estatuko legeak dioen bezala.

Horrenbestez, estrategia nazionala aurrera eramane da abiapuntutzat hartuta lurralde guztietan modu koordinatuan eta antzeko modu batean borrokatu beharra dagoela genero indarkeriaren

aurka, prebentzioaren arloan zein esku-hartzearen arloan. Horretarako, jada autonomia erkidegoak betetzen ari diren ekintza batzuk abiapuntutzat hartu dira, eta ahaleginak egin dira aurkitzeko zein esparrutan ez dagoen neurririk. Horrenbestez, esparru zabal bat eratu da, genero indarkeriaren aurka egin daitekeen guztiarekin.

Estrategiak 1.539 milioi euroko aurrekontua dauka. Uste dugu akats bat dela hori. Gaur egun, ministerioak 5 milioi euro inguru erabiltzen ditu genero-indarkeriaren aurka, eta kopuru hori autonomia erkidegoen artean banatzen du zenbait irizpideren arabera. Nafarroak, Nafarroako Familiarako eta Berdintasunerako Institutuaren bitartez, urtero 1.300.000 euro bideratu izan ditu genero indarkeriaren aurkako borrokara, eta, horretarako, ez du estatutik inolako transferentziarik jasotzen. Kopuru horrekin batera, zenbatetsi beharko lirateke beste esparru batzuetan indarkeriaren aurka egiten diren bestelako jarduketak (Justizia, gizarte zerbitzuak, toki entitateak, elkarteak eta abar), lakra horren aurka borrokatzeko guztira bideratzen diren baliabideak argi ezagutzeko. Gainera, dirukontusail berariazkorik behar ez duten beste neurri batzuk badaude, baliabide berekiekin egiten direnak baina berdin kuantifika litezkeenak.

Hori esanda, jada Nafarroako Gobernuak edo beste instantzia batzuek aplikatzen dituen neurriei buruzko galdera zehatzari erantzunez, honakoak aipatu behar ditugu:

1. helburua: Neurria

– 1: isiltasuna haustea sustatuko duten sentsibilizazio kanpainak (25-N kanpainak, Jaietan Zer kanpaina eta abar)

– 3: "Enpresak Indarkeriarik gabeko gizarte baten alde" ekimena irailetik aurrera ezarri da Nafarroan.

– 4: Indarkeriaren biktima izan diren emakumeentzako aholku integrala emateko dauden baliabideak ezagut daitezela sustatu eta erraztea.

– 5: birus-teknikak erabiltzen dituzten sentsibilizazio kanpaina berritzaileak: twitterren eta sare sozialetan egindako kanpaina, Gazteria Departamentuarekin koordinatuta.

– 13: toki entitateei kanpainetarako materialak eskuratzea ("Jaietan zer" kanpaina eta 25-N kanpaina.

– 18: "Emakumea eta kirola" kanpaina, urtero Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutuarekin egiten dena.

– 23: genero indarkeria deuseztatzeko egunaren ospakizun-jarduerak, berdintasunaren arloko eragileekin eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarekin koordinatuta.

– 29: Familietan genero indarkeria errotik kentzeko heziketa-ereduak sustatzea, Hezkuntza Departamentua.

– 31: Generoaren arloko prestakuntza programa ofizialak laguntzea: NUPeko graduondokoa finantzatzea.

– 32: Hezkuntza Departamentuaren "Relaciona" programan parte hartzea.

– 33: gazteek sare sozialen erabileran daukaten ohitura, Gazteria Departamentuarekin batera.

– 34 eta 35: berdintasuna sustatzea eskolaren esparruan.

– 36: gurasoen elkarteekin genero indarkeriaren arloko prestakuntza ematea.

2. helburua: Neurriak:

– 37: genero indarkeriako kasuak eskolaren arloan antzemateko protokoloak sustatzea. berriki Osasun eta Hezkuntza departamentuekin sinatutako protokoloa.

– 42: jada existitzen diren indarkeria kasuetarako protokoloa

– 55: laguntza juridikoko zerbitzua bermatzea: Nafarroako Abokatuen Elkargoarekin urtero hitzarmena sinatzea.

– 57: Zuzenbidearen arloko profesionalen genero indarkeriaren arloko prestakuntza ematea

– 68: Nafarroan 2010ean genero indarkeriaren biktimei laguntza integrala emateko lantaldeak sortzea.

– 69: osasun laguntza indarkeriaren biktimeentzat, konfidentzialtasuna bermatuta: jarduketa protokolo orokorrean jada sartuta dago.

– 74: indarkeriaren biktimei laguntza emateko lerroa: lanean hasteko zailtasunak dituzten pertsonentzako laguntza eta larrialdiko laguntzak.

– 76: APRODEMi laguntzea sentsibilizazioaren arloko baterako programa bat egiteko.

– 77: biktimei arreta emateko laguntza-baliabideak edukitzea: indarkeriaren biktima diren emakumeak hartzeko baliabideak, harrera-etxea eta 6 etxebizitza.

– 78: egoitzazkoak ez diren baliabideak, diziplina anitzeko informazioaren eta aholkularitzaren arlokoak: Lizarrako eta Tuterako laguntza integraleko lantaldeak.

– 80: etxebizitza babestua eskuratzeko erraztasunak: etxebizitzaren berariazko erreserba indarkeriaren biktima diren emakumeentzat; aztertzen ari da eskaintza hori zabaltzea etxebizitza berrietara ez ezik, erabilitakoetara ere.

– 81: emakumeei eta adingabeei gizarte laguntza integrala bermatzea: oinarrizko gizarte zerbitzuen bitartez egiten da.

– 85, 87 eta 88: genero indarkeriaren biktimeentzako lana. Enpresen eta Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren arteko hitzarmena, gizarteratzearen eta laneratzearen arlorako. Gizarteratze eta laneratze lantalde espezializatuak.

3. helburua: Neurriak

– 91: adingabeak genero indarkeriaren biktimaentzat hartzea jardunaldi eta ponentzietan.

– 93: indarkeria pairatzen duten emakumeen seme-alaba adingabeentzako laguntza integral, espezializatu eta diziplina anitzekoa: haurtzarorako eta nerabegarorako laguntza talde integralen bitarteko arreta espezializatu, indarkeriaren biktimei arreta emateko lantaldeekin koordinatuta. Adingabeei laguntza psikologikoa emateko baliabide berri bat sortzea egoitza-baliabideetan.

– 95: oinarrizko gizarte zerbitzuekin, adingabea babesteko atalarekin eta haurrei eta nerabeei laguntza integrala emateko lantaldeekin jarduketarizpide homogeneousoak prestatzea: adingabeak batzuek ala besteek artatuko dituzte txar edo babesgabetasun mailaren arabera, lehendik dauken protokoloen arabera.

– 96 eta 97: oinarrizko gizarte zerbitzuetako zentroak koordinatzea indarkeriaren biktima izan diren adingabeei laguntza espezializatu emateko.

– 119: oinarrizko gizarte zerbitzuetan eta oinarrizko osasun laguntzan prestakuntza ekintzak egitea.

– 126 eta 128: genero indarkeriari buruzko sentsibilizazioa, zenbait hizkuntzatan: material grafikoak, liburuxkak eta abar.

– 131, 135: prestakuntza eta laguntza GKEentzat eta etorkinen elkarteentzat.

– 136: biktima diren emakume immigranteen gizarteratzea eta laneratzea sustatzea.

– 149, 163 eta 166: salerosketaren biktimentzako protokolo bat egitea. Salerosketaren aurkako foro bat sortzea.

5. helburua: Neurriak:

– 169: genero indarkeriaren arloko prestakuntza eta sentsibilizazioa, justizia administrazioko langileei zuzenduak.

– 170: karrera judizialeko eta fiskaleko kideei prestakuntza ematea.

– 177: autonomia erkidegoetako gizarte laguntzako zerbitzuei atxikitako langileei prestakuntza ematea, genero indarkeria hautemateko eta haren aurrean jarduteko.

– 184: osasunaren esparruko profesionalei prestakuntza ematea (emakumeen genitalen ebaketarako protokolo orokorra eta berariazkoa)

– 185: indarkeria psikologikoaren aitorpena sustatzea.

– 186: genero indarkeriarekin lotutako gaiei buruzko urteko gogoeta-jardunaldiak.

6. helburua: Neurriak:

– 187: indarkeriaren biktimentzako plan pertsonalizatuak.

– 189: 2010eko erakundeen arteko akordioaren sinadura.

– 190: genero indarkeriaren eta sexu erasoen aurkako jarduketa protokolo bat eta emakumeen genitalen ebaketari aurrea hartzeko protokolo bat egitea.

– 191: biktimen arretarako baliabideen eta zerbitzuen mapa bat egin dadin laguntzea (webgunea).

– 192: sare ez autonomikoa, baizik eta eskualdez eskualdekoa egotea Nafarroan indarkeriaren biktimei laguntzeko.

– 193: harrera-etxeen sarerako hitzarmena sinatzeko prozesua.

– 194: informazio partekatuko sistema (RIEGV)

– 195: indarkeriaren biktimei laguntza integrala emateko lantaldeak leihatila bakarra izatea.

– 196: erakundeen arteko bilerak. Urtean bi saio egiten dira, gutxienez ere.

– 198: “Empresas por una Sociedad Libre de Violencia de Género” ekimena indartzea, irailetik aurrera.

– 201: salerosketaren aurkako protokolo bat egiten ari da.

7. helburua: Neurriak:

– 216 eta 222 (datu estatistikoaren bilketa eta urteko txostenak egitea)

Proposatutako ekintza guztietatik (242), Nafarroan gaur egun 62 betetzen ari gara. Horietatik, 46 autonomia erkidegoek bultzatu behar dituzte; gainerakoen ardura, planaren arabera, gobernu zentralarena da, baina Nafarroan jada baliabide berekiekin betetzen ari dira (16).

Baliteke neurri horiek, banaka harturik, diru-baliabideak inplikatzeko ala halakorik ez inplikatzeko (baliabide berekiekin egiten badira: teknikari berekiak, esate baterako, prestakuntza ekintzen kasuan), baina edonola ere Nafarroako Familiarako eta Berdintasunerako Institutuak zuzenean genero indarkeriaren aurkako borrokarako ekintzetara bideratzen dituen baliabideen datua badaukagu: 1.300.000€.

